

anaitasuna

1978. EKAINAREN 15-30 RAINOKOA - 365 ZENBAKIA - 50 PZTA.

10



ASESINADO EN CARTVELLA

11. JUNIO

El asesinato de...

...

...

...

...

...



(Ez da benetan ezer jatorrik jatorrizkoa ez baldin bada,
 Ez da ezer horren iraultzaile denik gure sakon izatea bezalako deskubrimendurik.
 Eta hau, maila guztietan, une hauekako gure Herriaren oinbarrizko agerpena:
 Egiazkotasunera berriz ere itzultzea.)

Isabel Leizaola

Poetak

EUSKAL HERRIA HILBEHARREZKO "ROYALTY" ORDAINTZEN DIHARDU

Benetan, herri batek benetako bizia du bere kulturarena den unean.

Bestela, bai gai ez delako hura lortzeko, bai beste bat ezartzen zaitolako, eguneko bizitza zirikaldiei erantzun beharke die berareak ez diren irteerez. Horregatik hilbeharrezko "Royalty" ordainko du.

Hau da Euskal Herriak eta bertokook bizi dugun egoera larria.

Zer adierazi nahi dugu?

Soil soilik, gure jatorrizko kultura nahastu digute, Herri bezalako nortasuna galdu dugu edo galtzen ari gara, zeren besteen kultura ezartzeagatik izugarrizko ordainketa egin dugu, hots, gurea bertan behera utzi.

Gaur, gure lege eta erakunderik gabe, agerpen material eta gogozkoak jatorriz gureak ez direnak, eta hizkuntza herriaren ondarea zeharo bazterturik, Euskal Herria une larri batean dugu.

Zer egin?

Soil soillean, Euskal Herriari bizi garen guztiok ahalegin handi bat egin behar dugu gure kultura berreskuratzeko eta egokizko "erantzunak" lortu edozein arazoren aurrean.

Ekitza honetan, EUSKALTZAINDIAK "BAI EUSKARARI" deitzen kampania bultzatzen du.

Honen helburua: Dirua bildu eta gogoak hurbildu egitarau bikain bat sortzeko beharrezko diren proiektuez euskal kultura eta Euskara baiezta eta sendotzeko.



Gure Herria bizi dadila nahi baduzu, lagun ezazu "BAI EUSKARARI"

Euskal Herriak ez du hil nahi, bizi nahi du, biziko zaitugu: Denon artean bizi ezazi behar diogu!

Nahi nuke BAI EUSKARARI laguntzea
 _____ pezetakoko diruz.

- Behin
- Urtekoa
- Hiru hilabeteko
- Hilero
- Izena _____
- Deitunak _____
- Helbidea _____
- Herria _____
- Probintzia _____
- Kontu Zenbakia _____
- Banketsa _____
- Sukurtsala _____

Sinatu.

EUSKALTZAINDIA
 Ribera, 6. entlo.
 Tfno. 4154745
 BILBAO-5



REAL ACADEMIA
 DE LA LENGUA VASCA
EUSKALTZAINDIA
 ACADEMIE ROYALE
 DE LA LANGUE BASQUE

EKAINAK
16
EUSKARAREN
EGUNA

Euskal kultura eta
 euskararen aldeko diru eskaera.



BAI EUSKARARI ?

Maltzurrago eta zientifikoago diren bide batzuren medioz herri bat kondenuatu eta deuseztatu, ekintzok zapalkuntza zuzenean oinharritu ez baina, beharrezkoa ez den eta nahi ez den sendagarria edo hobe hilgarria eman eta ez dago ez hitzik ez adierazpiderik herri osoaren hasarrea geldiarazteko.

Elebitasunaz mintzo da, Euskal Herriko ordenuzaintzaileei buruz, hertzainaz edo bestez, elikatzen da politikari asko egunero. Jende oso inportante autonomien finantziaketaz luzatzen da hizketan. Euskal Herriaren aurrerapena eta nortasunaz beti prest dago norbait hitz joko horretan parte hartzeko. Baina mamirik ez dago.

Prometitu baina gero ematen ez duen gobernu batez zer espero dezakegu?. Eusko Kontseilu Nagusiaren kulturarako kontseilaritzak beste garai bateko genozidioa kondenuatzen duela dio baina gero kontseilaritza berberak genozidio honen ondorioak gaur egun badaude kausak ere bai egon behar direla esateko gai ez denean, non geratzen da herriaren itxaropena? Zer itxaron daiteke kontseilaritza honetaz bere elebitasunari dagokion egitarauan, bostgarren puntuan, erdara batuaz, zera dioskunean: "Se permitira la enseñanza en euskera en las ikastolas y otros centros escolares con asignaturas obligatorias en castellano y en los grados 7 y 8 de E.G.B. se dará alternativamente la enseñanza en euskera y castellano". PERMITITUKO DUTE? eta gu gurasook historiaren aurrean gure seme alaben aldetik erantzule garenok, permiti al dezakegu, permiti ahal Euskal Herriko agoteak izatea?

Irakaskuntza pribatuaren sofismaren eraginpean, jeneralpen arrunt eta saskarraren izenean gure ikastolak erdalduntzea permitituko ote dugu? Non dago Jaun andre horien sozialismoa gure ikastola askotan hezierabide demokratiko, moderno eta progresista erabiltzen dela konturatu nahi ez dutenean? . Franco jeneralak deuseztatu ez zuena "sozialistek" amilduko al dute? Abertzale guztiek, zentzokoek, ezkertiarrek ez ote diete erantzungo?. Nola instituzionaliza daiteke politika motz, atzerakoi hau non aurrera joan beharrean gero eta atzerago baihoaz, non federalismoaren izenean, federalismoari ateak hixten dizkion konstituzio erdirakoiaren onhartzan baita. Hori al da BAI EUSKARARI?. Nola gaudeke gu hain itsu, politika hau apurtzen ez bada, urtzen ez bada, Irlandan bezala, De Valerarekin batera gure arima Espainolei saldu diogula baina hala ere gorputza baskoa dugula oraindik esan beharko dugunean?

Ezker abertzaleon idealismo antzuak eta umekoiak nahi al du gu desagertzea?. Benetan, 6 alderdientzat tarte politikorik dagoela usate al duzue?. Aski mesedez, aski protagonismoa, teorizaketa, ezintasuna. Burruketan, burruka guztietan batzeko ordu hori ihes egiten ari zaigu... Iraultza egiteko, politika instituzionalean ere parte hartu behar da. Datozen hauteskundeetara, sakabanaturik, elkarren kontra, programa politikorik gabe joko ote dugu berriro ere?. Epe luzetarako estrategia berdinez oinharritzen ez garela hautsiko al dugu Euskal Ezker osoaren batasuna?. Euskal Langileria nazkaturik dago elemeletaz. Itzela izanen litzateke ETAn bakarrik gure itxaropena finkatzea. EKNK gure erantzutea eta kontratasuna merezi badu, gu abertzaleok, gu sozialistok eta iraultzaileok orma baten kontra bizkarra emanez afusila gintzatela mereziko genuke.

ANAITASUNA

ZUZENDARITZA, IDAZKARITZA, ETA LANKIDEAK: J. Arzelus, T. Trifol, J. Llerandi, X. Kintana, M. Aldana, X. Gereño, J. M. Torrealdai, M. Alvarez, A. Oiarzabal (Gipuzkoa), I. Zabaleta (Araba eta Nafarroa), M. Lanhatoua (Iparralde), X. Arzelus (Bizkaia), J. R. Etxebarria, P. Agirrebaltzategi, A. Eguzkitza, X. Mendiñuren, I. Azkoaga, A. Loroño, J. Mendizabal, J. Azurmendi, J. Iturbe, B. Atxaga, I. Urtasun, M. Haranburu, M. Lasa, I. Mendiñuren, Jon Etxebarri, R. Ordorika, E. Enziondo, J. L. Alvarez, S. Laffite, M. Pagola, J. Idigoras, J. Agirreazkoenaga, K. Anakabe, E. Martin, J. Aurre.
MAKETAPENA: F. Garcia.
FOTOGRAFIA: Susperregi.
KOMIKILARIA: A. Olariaga.
PUBLIZITATEA ETA HARPIDETZA: J. Idigoras, A. Uri, I. Apraiz, A. E. Marroquin.
IDAZKARITZA, ADMINISTRAZIOA ETA HARPIDETZA: Zabalbide 68-BILBO. Tf: 4335800/7/8/9.
MOLDIZTEGIA: Iparragirre S. A. Carretera de Galdacano s/n. BILBO.

OHARKIZUNA

Argituzketa ez da arduratuko artikuluen edukiek duten erantzunkizunaz. Beronek ez du esan nahi ez alde ez aurka dagoenik. Bestaldetik, beregain hartuko du editorialearen eta bere izenez izenpetutako artikuluen erantzunkizuna, beraz baita (hola dugu ulertzen) bere ideologi bilboa.



EMAKUME LANGILEAREN ARAZOAK JASO

Emakume langilearen arazoak jasotze-
ra erabateko hautaketa batez konpro-
metatu zen LABeko Biltzarrea. Halere,
Biltzarreak ez zituen LABeko feminista
batzuk proposaturiko komite mixtoak
eta exekutibo erakundeetan paretsu
emakume postuak izendatzeak onhar-
tu. Emakumeen errebindikapenak
aparteko alor batean ez ezik LABeko
errebindikapen plataforma orokorrean
ezarri dira, emakume borroka ere lan-
gile klaseen borroka barruan ezarri.

LABeko I BILTZARRE NAGUSIARI BURUZ

Lejoako Unibertsitatean elkartu
ziren LABeko 1.000 bat ordezkari
LABen sindikalgintzari zentzu eta
aurrerabide berri bat ezarri diote. Eus-
kal Herriaren nazional eta sozial aska-
tasunaren hildotik, LAB eguneko eta
burjes demokraziarako sindikatu arin,
zabal eta maliobragai bat bihurtu da.

Biltzarreko hiru egunetan zehar eta
puntu edo eritzi bakoitzaren barnean
ezker abertzaleok (eta beste ezkertia-
rrak) aspaldidanik kezkatzen gaituen
borroka bideak jorratu dira. LAB abert-
ztale (7 herrialdeetara kokatua), asan-
bladari, negoziaketagai, autonomo,
emakume langilearen arazo jasotzaile.
Horra! LABen aburu eta oinharriak.

Lehenik, Biltzarreko metodologiari
buruzko proposamen bat agertu zen,
halegia, LABeko puntu nagusiak uki-
tzen zirenez puntuok ez ordezkarien
Biltzarrean LABeko BATZARRE
NAGUSIAN erabaki behar zirela zioe-
na, baina Biltzarreak gehiengo batez
Biltzarreko Metodologia eta Mahaia
onhartu zituen.

Biltzarrean zehar eritziak eta ezta-
baidak behar bezalako hoztasunik eta
sakontasunik gabe polarizatu eta pun-
taertzetan ezartzen ziren. Zenbaitek,
gehientsuenek burjes demokraziaranz-
ko egoeran gaudelakoan abiaturik bur-
jes demokraziarako sindikatu konpeti-
tiboaren alde jo zuten. Somatu zen
baita ere beste jarrera desestabiliza-
tzailea ere, baina, ez eguneko egoera-
ren estudio sakon bat, ez teoria heldu
bat eta alternatiba garbi baten ezean,
lehenengoc halorapena onhartu zuen
Biltzarreko gehiengoak.

Balorapen horretatik abiatuz, lehen-
go korrentearen tesiak atera ziren

garaile Biltzarrean, sindikatuari nega-
ziazteko kapazitatea edo askatasun
osoa emanaz, e. a. Lekuan lekuko eta
sektoreko egoera ikusirik, eta biltza-
rreak funtzionatzen ez badute sindika-
tu bezala hartuko baitu parte. Halere,
batzorde ordezkariak onhartu eta bu-
tztzekotan geratu zen.

Gehiengo sindikatu erreformista
sindikatu minoritariak bazterreratze
gainditzearen eta euskal langile-
iraultzailearen indartzearen USO, S
eta CSUTekin batera SINDIKALARTE
KO bat muntatzeko proposamena
galdu egin zuen. LABek Euskal Herria
langile inguru zabala eta berezia du-
lako noski, eta lehenik LAB indartu
behar delako.

BILTZARREAREN BALORAPENA

LABeko Biltzarretik balorapen bai-
korrak atera ditut. Lehenik garbi gera-
tu baita LABeko ekintzaleek ba dakite-
la zer nahi duten eta lortu dutela jada-
nik sindikalgintzako borroka experien-
tzia bizi bat. Bestalde, LABek beste sin-
dikatuak ez bezalako lekua eta irault-
zagaitasuna duela euskal langilegoan.

Iraultza, ordea, lekuan lekuko eta
dagoeneko baldintzak kontuak hartu-
rik behar da egin. Ez du balio, ezker
abertzaleok hainbeste bider hartu izan
ditugun bihotzetiko edo errailetatik
jarrera erradikalak. Ba dakigu bai "in-
dependentzia" edo "ETA Herria zue-
kin" oihukatzen bazterretan, baina
langile (edo politik) erakunderik era-
tzen ez dugu jakin. Eta ezker abertza-
leok eta ETA beraren borroka eta lor-
penen fruituak maiz arrotz diren era-
kundeak irentsi dizkigute. LAB nagusi-
ki langile erakunde bat da, eta beste
ezerk ezin dezake leku hau bete, hortik
LAB sindikatu zabal (bertako eta etor-
kinak nazional eta sozial askatasun-
erako integratzeko gauzatuz) eta profe-
sionalagoa baten beharra euskal langi-
legoaren abangoardia bezala bidea
urratu ahal izateko. Hortik lanari heldu
beharra, bai sektoreka, bai lekuan
lekuko.

LABeko korronteei buruz, berri-
nabarmen geratu da EIAko korrenteari
hagina tinkatu diola lanari eta bere
fruituak eman dituela Biltzarrean ere,
beren organizaketa eta profesionalita-
suna aportatuz. LABeko beste
korrente nagusia KASen aldekoa ager-
tu zen (independiente jendea eta
HASIkoak batik bat), azken korrente
hau nolabait ere gainditua geratu
bazen, txertu bizikia gerta diezaiok
aurrerakoan langile lanari profesiona-
lago ekiteko.

Bukatzeko Sekretaritzaren Orokorreko
zortziren zerrenda doakizue:

J. A. Arrea
M. Auzmendi
T. Corres
K. Elejalde
Joyo Larrazabal
J. Idigoras
X. Onaindia
J. J. Zubimendi

Alex

LAB KASeko KOORDINAKUNTZATIK ASKE

Sindikatuaren autonomia zertze-
ra izan ziren eztabaida, salaketa eta
gorabehera larrienak. "Sindikatu inde-
pendiente bat izan nahi badugu eta
gure autonomia mantentzen jarrai
behar badugu, ezin dezakegu onhar
inongo eta edonolako alderdi edo koa-
lizioaren jarraitzaile izatea" aburu hau
guztiok aitortu bazuten ere, zenbait-
tzentzat KAS edo Koordinakuntzan
LAB mantentzeak ezker abertzaleen
alorrera mugatuko luke, eta etorkin
eta Euskadiko langile batasunarentzat
eragozpena bilakatuko litzateke. Area-
go esanen nuke, nahiz eta Biltzarrean
inor garbiki aipatzeaz ausartu ez, zen-
baitzuk KASeko Koordinakuntzan LAB
ETAk baldintzatua geratuko litzateke-
la pentsatzen dute. Eta arrisku hau ez
EIAkoek bakarrik, zenbait independen-
dientek eta HASIkoek ere aipatu dute,
halere, LABen autonomia erraz salba
daiteke, KASeko Koordinakuntzak ez
baitu ez obligatzen ez baldintzapetzen.
KASen aldeko izanik ere, aipaturiko
arrisku horik garbitzearen eta LABen
independentzia eta zabalagotzearen
alde, defendagarria da, geratu bezala
LAB KASetik aske jartzea. Puntu des-
berdinak baitira bai KASen Alternati-
ba, bai KASen aldekoa izatea, eta bai
derrigorrean LAB KASeko Koordina-
kuntzan mantentzea. Bestalde, KASen
aldeko batzu LAB autonomia ez ezik
alderdi politik baten lokarri izatera iri-
tsi dela salatu nahi izan dute.

Beraz, puntu hau gehiegi dramati-
zatu zelakoan nago. Eritzi desberdin
horik gorabehera eta 12 botoz LAB
KASetik askatzean, ehundik gora bai...
zapuzturik, LAB utzi eta hautsi beha-
rrez ekin zituen. Idigoras, Oraindia eta
Arrearen bitartekotasunari esker lehen
jarrera berpentsatu ondoren, LAB
barruan lan eginez borrokan jarraitzea
erabaki zuten. Izan ere, LABetik alde-
gitearekin zerbitzu torpea egin dakioko
euskal sindikalgintzari eta euskal lan-
gileari.

MAIATZAKO POLITIKA ARANTZAK

Azken urteotan maiatzean gorriak ikustera ohituak gara. Ihazko urtean ere mementu larriak bizi genituen. Mugimenduan ginen, "baldintzak" hobea-gotzen. Burruka zuzenaren estrategia barnean, Suarez-en erreformaren kontra. Iritsi ziren zorioneko hauteskondeak, eta azken batetan txarrena hauxe: **Zatiketa** ondorengo urtean zehar.

Ezker iraultzaileak eta batez ere abertzalea, Euskal Herri mailan ekintzabide bitan egon gara:

1. Erreforma bera eta ondorioak ukatu, aldatu nahian eta batez ere kanpotik presionatuz.
2. Erreforma konstituziogilearen ondoriopean, jartzan dituen muga barnean batez ere burruka planteiatuz. Baina ezin uka, eta amnistia astea aurten ere ospatu dugu, lehengo eta oraingo urteko hildoak ez direla maila berdinekoak. Eta gure burruka bidea errealtateak eskatzen digun adinako egokitasuna behar du, inolako beldur ez prejuizio gabe.

Oraingoan ere eztabaida franko dugu, eta batez ere HASIko erabakien inguruan kokatzen ditut, zeren maila askotan HASI ispila bat bihurtu zaigu.

Azken finean hauxe izan dugu unteza: nola karakterizatu gaurko egoera sozioekonomikoa eta politikoa:

1. Alde batetik: Gaurko egoerak iraultza aurreko berezitasun propioak dituela, esaten da eta ez dela urrun ikusi behar iraultza sozialista. Beraz gaur egun Suarez-en erreforma eta konstituzio burjesak ez du oinharri sendorik, ez edukiko agian. Egoera ekonomikoa ere, hankaz gora dago.

2. Bestetik: Burjes demokrazia ez da zentzu hertsian inoiz gogortzen ez kontsolidatzen, bestela ez luke ondorioz edukiko egunero ematen den klase burrukak. Baina prozesuak ez dira geure nahiaren arauera ematen, baizik egoera materialak beharturik eta klaseen arteko indarren arauera inposaturik. Eta gaur hemen burjesia monopolista, ezartzen ari zaigu aparatua burjes bat, zenbait berezitasun demokratikoaz kutsaturik.

Eztabaida honetan, alderdiaren egitekoa noski, difereentea daiteke. Eta gure errealtate sozipolitikoan ekintzabide bi proposatzen da:

1. Enfrentamendu zuzenak, maila guztietan jarraitu behar du, erreforma eta konstituzioaren ondorioz jaiotzen diren guztiaren kontra. Berez dena kutsatua baitator. Prozesua beste abiadura batetara makurtu behar da (gure klasan KASeko alternatibatik) eta jarrera hau azkenerarte eraman, logika guztiarekin. Ahalginez beti kanpoan gertatzeko arrazoiak aurkitu behar dira, motortzat balio dezaten. Delako "sartzeak" edo "erabiltzeak" azken batetan legitimatu besterik ez dute egiten. Barnetik ez da posible deus egiterik, eta burjeseriaren kontra antibioterea sortu behar da. Etsairik printzipalena UCD eta, alderdi erreformistak dira.

2. Kojuntura bakoitzean, helburu politiko hori, epean ezartzen da. Eta epeak (epea ez da itxia dinamikoa baizik) klase burrukak markatzen ditu, enfrentamendua maila guztietan egokitu behar delarik: Oinharri mailan masa mugimenduan, hau baita ezker iraultzaileen indarra, baina baita herriaren nahia aurrera eramaten, egokitzen beste bide batzuek urratzen, baldintza iraultzaileak heltzen. Posible delako burjeseriaren aparatuen okupazio partziala eta erabilkuntza iraultzailea. Eta alderdiak bide biak urratzen saiatu behar dira, baina zehar, erabiltzeak.

izanik. Ez da beti parte hartu behar oposizioan alternatiba bezala egoteko, gai izan behar da. Gaurko etsairik printzipalena burjeseria monopolista da, A.P. eta U.C.D.ren bidez errepresentaturik. Beste arazo bat, beste alderdi zenbait kontzentraziozko politika erabiltzea, UCDrekin batez ere, eta gaurko egoeran guztiz erreformista eta langileen kontrako ekintzabidea izatea.

Beraz arazoa honela, ekintzabide arras diferenteak proposa daitezke etorkizunerako, eta alde batetik guztiz exkluyenteak batzuentzat, hauk oinharritzko tesis ideologikoetan inposatzen direnean.

Eta HASIko biltzarrean alderdia definitzeko, oinharritzko tesis hau onhartu zen:

IV.2.7.: "...En este sentido HASI entiende que KAS es por su naturaleza el bloque dirigente de la revolución vasca. KAS, esto es, el conjunto de partidos, organismos de masas y organización armada... capaz de alcanzar objetivos revolucionarios irreversibles."

(Guzti hau beste tesis batzuen artean. Laster publikaturik ikustea espero dugu. Dena dela KASEko ikuspegi tradizionala aldatzen da, berri bat jarriz. Hildo beretik beste gai bat dugu hau.)

Jakina hemen diferentzia sakonaren aurrean gaude, eguneroko burruka politikoa egiteko moduan, iraultza prozesua egiteko bidean. Gorago jarri ditugu, eta laburrean:

1. Alderdi "erradikala", kontrara jokatzeko, eta politika jokua enfrentamendu zuzenaren hildotik, sustraitik, abiatua.

2. Alderdia, maila guztietan lan egiteko gai dena, baita gaurko egoeran oposizioan zein botere neurri konkretuak erabiltzen langileen eta herriaren interesak ordezkatzeko.

Eta gaur Euskal Herrian egunero bi politika bideak, desarrollo diferenteak sortzeko, gaitasuna dute. Erantzukizuna handia dugu (esaterako ikusi besterik ez dugu Iñaki Esnaola izenpean idatzirik artikulu EGINen 1978.eko maiatzak 26).

Eta errealtatean ez dira nahiko baldintza subjektiboak lantzea. Beharrezko da pausoak lortzeko alternatiba egokiak iraultzaileak prestatzen ari zirela, zeren iraultza prozesua herria eta langileria osoak eramaten dugu aurrera, geure legea inposatuz. Ez da kolpe batetan egiten den kontua.

Lehengo urteko zatiketa, ekainekoa hain zuzen ere, sakondu egin da. Eta sakontze horren kontra egon garenok, HASIren barnean ez dute gure eritziak eta joerak aurrera egin. Ahaleginduko gara behintzat, eguneroko burrukan, batasuna egiten, posible den tokian, langileon iraultzarako eta Euskal Herriaren independentziarako behar dugun tresna, ekintzabidea, alderdia, erakundetzen.

J. Agirreazkuenaga

1978ko maiatza



NEKAZARIEN GARAIPENA MEHABURIA IRISARRIN

Maiatzaren 23an zer pasatu da Irisarrin?

Irisarri dugu, Behe Nafarroako herri ttipi bat. Lehenago oso famatua izan zen, batipat, Konpostelako bellarien garaian. Geroztik, urak bideak egin ditu eta beste herri guziena berdinerara, Irisarri bere odola galdu du. Gazteak joan dira, bizi guttuz doan lekuan heriotza sartzen da. Iparraldeko herri guziena kondaira tristea.

Bizkitartean, ez zaizkio Irisarri herriari bere seme alaba guziak, ihesari lotu. Batzu egon dira, beren hautua egin dute: "esperantza ilunak badatozkigu ere, geroa goibel badakusagu ere, familia baten jasotzeko ahalik ez badugu ikusten ere, guk hemen, gure Herrian, Euskal Herrian eta laborantzian nahi dugu jarraitu!"

Oihu samín eta mintsu hau, Iparraldeko basoek, mendiek, harpeek, aho batez dehadarkatzen dute. Eta hain zuzen, Joseph Goñi -gure oihanetako zuhaitz gazteetarik bat da. Berea duen lurrik ez dauka baina 25 urte hauetan lan egin du, bere kopetaren izerdi sortez berea ez duen lur hori bataia-

tu du, bakar bakarrik ixilean eta agerian bere borroka hau darama. Horrelako borroka legeak ez dio berea ez duen lur hori, bere bilakatu?. Bai, benetan gizon guziena aurrean al dio berea ez duen lur hori, bere bilakatu?. Bai, benetan gizon guziena aurrean Joseph Goñik lur hori bere egin du. Eta, egin hitz hau da guziz funtsezkoa, ez baitu beste askoren irudira lurrik lapurtu, baina ekintzaren bidez, laneko ekintzaren bidez, bere bihurtu. Ez al da hau egiazko jabetasuna? Hain zuzen, tribunalek eta legeak kontutan hartzen ez diotena, ez baita honen etikarik zilegi: Eta berehala galdera hau da datorkigu, zer al da etikatik kanpo dagoen legea? Zer al da errealitateak sortzen digun zuzenetik kanpo dagoen tribunala? Ez al da maskarada itsusi eta itsu bat baizik bihurtzen?

Dena dela, benetako legetik aparte delako, lege faltsuak Joseph Goñi bere etxaldek kanpo manatu du. Hau digute izendatzen ZUZENTASUNA.

Alderdi politikoen herriko Ordezkaritzek



Nekazariak erabakitzen dute:

Goñiren etxaldea zaindu behar dutela.

Photo Daniel.



Irisarren legezizonak eta jendarmek Goñiren aberetaz ez dakite zer egin.

Goñi familia eta Urruti familia: nor da jabea?

Irisarrin topatzen dugu Mehaburia izeneko etxaldea, 37 hektarea ditu eta bakarrik 12 lantzen ahal. Etxalde hau 1953. urtetik honera Goñi familiak erabiltzen du, baina zoritxarrez ez da haiena. Etxetiar edo afermatzale faizik ez baitira.

Etxaldearen jabea, Irisarri bertan dago, ofizioz zurgina delakotz, etxaldea emaztearen izenean ezarria digu. Senar emazte hauek seme bat daukate, gaur egun 20 urte ditu eta laborantzan plantatu nahi. Beraz, Urruti familiak, nahiz etxaldea bere ahaide baten heriotzearen ondorioz, ukana duen eta segurrez ere sekulan berek ez landua, bere semeari eman nahi dio. Ohar gaitezen lehen puntu hori, familia honek ez lanezko ez izanezko izanik ez daukala etxe honetan, bakar bakarrik dauka legezko jabetasuna.

Bestaldetik nor topatzen dugu? Bestaldetik, Goñi familia dugu, aita ama zaharrak eta 35 urteko semea, ezkongugabea. Orain duela 25 urte hartu zuen Goñi familiak Mehaburia etxetiar bezala, geroztik afermatzale sartu dira. Eta, hain zuzen, afermatzale legezko izatea erdietsi zutenean jabearekiko eztabaidak sortu ziren. Gaur egun, beren afermatzale epea amaitu baitute kanpo joan dira baina Josphe semeak etxaldea besarkatu du, legez berea ez zuen etxaldean egon da. Egia esan, Tribunalak erabaki zuen afermatzale zaharrei buruz (Joseph-en aita amak) baina ez Josephi buruz, ez zelako Joseph. afermatzale. Geroztik, Joseph-ek afermatzale estatutua eskatu du eta datorren ekainaren 21an tribunalak erantzunen dio. Dena dela, tribunalaren erabakiaren itxaron gabe, maiatzaren 23an, uxera eta jendarmeak etorri zitzaizkion, indarrez bederen behar zuela kanporatu.

Nola pasatu den

Lehendabizi batean Joseph harritu zaigu. Eta nahi ukan duenean bere abokatuari, alkateari, baita sindikaburuari dei egin, debekatu diote. Laster, nekazari zenbait etorri dira eta beldurrez edo uzkurrez Josephen pusken (ohe, tresna, mahai etab.) ateratzen hasi. Baina, arratsaldekarri nekazariak gogoetatu dira "baizik eta Joseph uzten bazen etxetik kanpo ezartzera ez zuela gehiago barnertzerik ukanen". Beraz, Joseph kanporatzera ez zen utzi behar eta eztabaida bizi biziak sortu ziren polizia gizonekin, baita uxerarekin. Alkateak, abokatuak, sindikalariek argiturik eta zuzendurik elkarrizketa zabaldu zitzairen Becabe suprefetari, berdin ere tribunaleko presidenteari. Ondoren, Bekabek bere polizia gizonak atzeratu zituen eta Jaun Presidenteak bere erabakiak.

Arratsaldean zehar arazoaren jakina hedatu zitzaigun barneko baserrietaraino eta 8etarako 180 laborari etorri Joseph-en laguntzaile. Erabakitzen dute, gau guziaz goardia eta elkarrizketa aurreratzea. Biharamunean, Joseph bere gauza guziekin batera, nekazarien esker, Mehaburian arrasartzen da.

Hona, sindikalarien eta suprefeturaren artean hartu diren erabakiak: 1- Joseph etxaldean egonen dela bere uzta guziak bildu arte (artoa, garagarra, belarra) 2- Polizia indarrak ez dela gehiago ibiliko. 3- Joseph-i joan behar baldin badu ere, zor zaion epea emana izanen zaiola bere zeren apailatzeko.

Nekazariak irabazi dute

Orain, Joseph-ek ekainaren 21ean jakinen du, joan behar duen ala ez. Dena dela, garaipen izugarri bat hala ere, kanpoko inor gabe Irisarriko nekazariak kanporatu dituzte legea eta indarra, prefeta eta tribunala. Gure demokrazia faltsua beldurtzen bazaigu bere benetako aurpegiaren erakustez! Faltsua eta gezurrezkoa. Gora nekazariak!, Gora zapalduen borroka! Gora askatasunaren bideak!.

M.L.UHAITZE.

INDEPENDIENTEAK ETA EZKER ABERTZALEA

Asko gara, ezker abertzalearen kontextuan egonik marginatuak sentitzen garenak, zeren eta bazterketa kontziente edo inkontzientea, baina beti tamalgarrria baitago. Baina nahiz ezker abertzaleetik zokoratuak, ez horregatik Euskadiren sozialismo eta independentziarako burrukatik zokoratuak. Alderdi politikoak dira zuzenik isolamendu honen erantzule.

Asko eta desberdinak dira hain eskatua den ezker abertzalearen debatarekiko gai hau idaztera bultzatu nautenak, baina garrantzitsuena urte askotarik hona burrukan murgilduriko burkide batekin izandako elkarrizketa da. Berak zioen mugimendua ibiliz frogatzen dela, eta bidea ibiltzera prestatzen naiz.

Artikulu honetan abertzale osoak ahaztu gabe eduki behar zituen, baina tamalez ahazten dituen kontzeptu batzu argitzera mugatuko naiz. Ezker abertzaleak Euskadin benetako alternatiba bat ematen jakin behar du, baina hori bai, burruka alternatiba bat. Benetako alternatiba eta burruka alternatiba ez dira inola ere kontraesanean dauden kontzeptuak.

Ezker abertzaleak bere buruz eta euskal jendoldeak eratu behar dituen alternatiba horren inguruan. Ez legoke ezer, iraultzaile, independentista eta klaseko alderdi zabal baten erakuntza baino desiragarriagorik. Baina, zentzu horretan urrats txiki batzu ematen ari badira ere ba dirudi denbora luze iragan beharko duela proiektu hori egia bihurtu arteraino. Aurretik pertsonalismo asko gaingitu behar dugu, ezker abertzaleak jende espektru zabat bat hartzen duela jakin. Errore bat da, nahiz eta teoriarik bai, praktikan ezker abertzalea zenbait alderdiren militanten zenbaki jakin batetara mugaraztea: Ez dago oker handiagorik. Baina ez da hau ezker abertzalearekin zerikusirik ez duen

okerra, aitzitik bera da honen eragile eta arduradunik handiena. Handia eta garaia da, nire ustez apropos ezker abertzalearen dinamikatik baztertua izan den burruka ahalmena. Asko, ehundakak dira bere egunean alderdi abertzaleetan militatu edo eta KAS izan daitekeen bezalako alternatiba iraultzaile baten alde burrukatu zutenak, eta arrazoi ezberdinetatik baztertuak izan zirenak. Edo, existituko ote dira akaso, bultzatzera idazten nauen eta bion ezagun batek zioen bezala, lehen mailako eta bigarren mailako euskaldunak? Ezetz uste dut.

Arrazoi hauetarik garrantzitsuenak eta alderdiek inoiz ez dutena ulertu izan nahi, eta barkatu ez dutena, jende hauengandiko alderdi diziplinaren onhartzeko eza da. Ez dakit apropos edo ez, baina burruka eratu eta alderdi diziplina berdindu egiten dituzte. Mundu guztiak onhartzeko du eraketaren beharra. Eraketa beharrezkoa da baina inora ere ez bakarria. Euskal langile klasea era askotara era daiteke, alderdi politikoa ere horietako bat izanik, baina hor daude ere sindikatuek, hauzko elkarteak, komite herrikoiak. Ezker abertzaleko alderdiek ez dute praktikan hori ezagutu nahi. Funtsean, zentzu horretan agirik edozein azterketak, eta batez ere beraiek "independiente" deituriko horiei eta beraien alderdiekiko balizko posizioei buruz eginiko praktika iraultzailearen alde batera uztera

daramatza. Errazagoa baita pertsona bati meziprezuzko zentzua "anarko" edo bestela "antipartido" ditzetea, arazo hau egiazki eta bere Azken ondorioetaraino planteatzea baino.

Guzti honegatik, komenigarri litzateke ezker abertzaleari eta batez ere berak osatzen duten alderdien militanteei ondokoa oharraraztea: Batzutan eraketa planoan izugarriko iraultzaileak ikusten dela norberaren burua, eta jakin barik izugarriko erreformista izaten da. Izugarriko ezkerrekoa izatea uste da eta izugarriko eskuinekoa izaten da. Izugarriko diziplinatu izatea uste da eta izugarriko inkontzientea izaten da. Eta betiko arazora gatzotz beti: zer da benetan diziplina kontzientea?

Printzipiozko arazoa, zeinetarako ez baitago erantzun teknikorik.

Asko gara, ezker abertzalearen kontextuan egonik marginatuak sentitzen garenak, zeren eta bazterketa kontziente edo inkontzientea, baina beti tamalgarrria baitago. Baina nahiz ezker abertzaleetik zokoratuak, ez horregatik Euskadiren sozialismo eta independentziarako burrukatik zokoratuak. Alderdi politikoak dira zuzenik isolamenduen erantzule.

Alderdien kaptatze eta funtzionamenduan eritzi sozial ideologikoengatik eginiko eskusioa sozial eta ideologikoki mugatua dago. Eskusibismo hau ez da zerutik jasotzen, artikulatua behar izan den logika

...tibo bat du. Baina pentsamen-
... eta ekintza sistema honen ager-
... eutsi duen logika ez da bera-
... jarraitzaileek uste dutena, bere
... kontrakoa baizik, liberalismo bur-
... asaren logika da. Ezker abertzale-
... alderdiak, orain direna utzi gabe,
... alderdiak bihurtu nahi lira-
... keenak, beren kontsignak agin-
... ak direlarik, horien zuzendaritza
... baita komite zentral bat, baizik
... estatu nagusi bat; beren erakun-
... estatuak edo eta politik
... taraua, alferrik bilatuko baiken-
... ke; barne eztabaidatze edo eta
... itanteen arteko ideia debate
... antza izan ahal diren guztia,
... soluzio fermentu bailitzen arbu-
... tuz eta hierarkia gradu eta zigoia-
... etan hordituz. Hau da ezker
... abertzaleko erakunde iraultzaile ez-
... berdinek beren buruari jantziriko
... eurpegi monolitiko zorrotzak, zera
... erakuskigu praktikan, estruktu-
... raketa, eraketa eta kohesio falta
... garri bat, Zuzendaritza metodoe-
... kiko gogortasun zurrun horrek ez
... sarritan usteen ahultasuna eta
... burukatzaileen motibapen sakonen
... zitasun amorfoa beste arrazoirik.

Burruka iraultzailearen gogorta-
... rak, burdinezko baina era berden
... xibile den diziplina eskatzen du,
... ondate euskorra, kohesio han-
... da. Baina diziplina hau ez da kausa
... efektu bat da. Ez da lehen ter-
... mino batetan eta inperatibo moral
... eta talde tekniko batek bultza-
... ta sortzen, baizik eta fisiologia
... etik. Diziplina norberarekiko
... npromezuan hasten da, gero or-
... nismo batekin lotzeko. Organis-
... hori ederki izan daiteke gizar-
... alderdi politiko, komite antinu-
... lear, hauzo elkarte... edo azken ba-
... tan, edozein benetako burruka
... atarforma bat.

Halaber, alderdi politiko bate-
... en eratu gabeei, burrukan ez ego-
... ez akusatatu zaigu. Baina burruka
... ez da astero alderdi batzarre bi egi-
... da. Burruka kalean dago, lantegian,
... azoetan, antinuklear mugimen-
... zuan, amnistian... Eta une guztie-
... en kontziente gara, esaten dutena
... anik ere, ez dela erakundea burru-
... iraultzailea "egiten" duena, ai-
... zitik, burruka iraultzailea dela era-
... undea egiten duena. Iraultza gauza
... ar serio eta zabala da, langile kon-
... zienteek soilik sostengaturiko mi-
... oria iraultzaile profesional baten
... azoa baizik ez izateko. Ezin daite-
... denen obra besterik izan, eratu
... eak eta jakinak barne: "Langile-
... ren klase mugimendua ez da

inoiz minoria eratu baten mugimen-
du bezala ulertua izan behar". Lan-
gile eta herrikoi mugimenduaren ba-
tasunerako benetako garantia ez da-
go erakundeen gailurrean, bertie-
zean, baizik eta oinharrian, langile
jendolde eratuan.

Artikulu hau bukatzeko, diodan
ezker abertzaleko zenbait alderdi-
tan, nahiz eta beroriek ukatu nahi,
hiperzentralismoak, edozein barne
ezberdintasun jasanezinezko bihur-
tzen eta debate zabal batez suntsi
edo berreraiki zitekeen tenden-
tzia bat, zatiketara bultzatzen diren
elastikotasun eza sorrerazten duela.
Ez da inoiz nahiko eztabaidatzen,
edo eta beranduegi egiten da; hone-
la eztabaida egite kontsumatuen
onespena bihurtzen da, argitu gabe-
ko eskusio neurri baten xuribide
burokratiko gisan. Ezina beraz "de-
mokrakzia" gerorako, erakundea in-
dartzten denerako, etsaiarekiko bu-
rrukaren berehalako premiatasunari

aurpegi eman zaionerako uztea,
arrazoï simple bategatik, hau da,
zentralizapena ez delako afektiboa,
era beren demokratikoa den neu-
rrian baizik. Demagogia antiautori-
taria eta autoritarismo antidemo-
kratikoa haustezinezko bikote bat
den bezala, era berean zentralismo
eta demokraziak haustezinkiro lo-
turiko termino hauek ez dute
adierazten kalifikatzaile kontigente
eta substantibo baten natura, ez eta
izate geldi eta ezberdin biren lotura
(gaitezen oraingoz zentralizatuak,
eta etorriko dira demokratikoak
bihurtu ahal izango garen egunak);
barne demokrazia ez da zazpigarren
eguneko zeregin neketsua ahitu
denerako. Termino bakoitzak ez du
esistentziarik beste gabe: Egiteak
arduratu dira eta arduratuko dira
hori frogatzen historian barrena.

GALTZAGORRI

FRANTZIAKO MAIATZAREN IRAKASPENAK

Duela hamar urte Frantziako Maiatzaren gorabeherak bukatze-
ra zihoazen. Herri mailan, gure artean, Frantziako maiatzak itxaro-
pen berritua zekarkigun, gure buruaz soilik fidatzeko itxaropena.
Beste batzuk, alderdi zaharrek batez ere, historian zeha erakutsi
digutenez, ez dizkigute babak eltzetik aterako. Frantziako maiatza-
ren lekzioa positibotzat hartzeko, gogoak soilik ez duela deus balio
irakatsi du eta erakunderik ez dagoenean gogo guztiak, iraultzai-
leak izan arren eltzetik atera gabe gelditzen direla diozku Frantzia-
ko maiatzak. Berauxe dugu beraz Maiatzaren irakaspén ederrena.
Izan ere, burruka antolatu bat aurrera eramateko erakunderik ez
zegoen, ez zegoen hala ere politika instituzionalean inolako intzi-
dentziarik. Beste alderdien aldetik, politikan sarturik eta ongi sartu-
rik zeuden aldetik ez zuten maiatza haren esperientzia aprobetxatu
nahi. Maiatzaren lekzio nagusia zera zen beraz: Masen burrukak
eta politik burruka instituzionalak ez baztertzea, ez isolatzea. Bata
bestea baino garrantzi handikoa dela esatea bien artean dagoen
elkar lotura dialektikoaz ahaztea da. Ez dago hemen bi burrukarik.
Bi burruka egon dadin, gu burjesak izan beharko ginatke. Bi
burruka hauek parte osoaren atalak eratzen dituzte, bien artean
elkar loturarik ez balego espontaneismo hutsean eroriko ginatke.
Botereari kontra ekiteko beharrezkoak dira bi polo horien argitasu-
na. Masen burrukak eta politik burrukak behin behineko burruka
harmatupean ipintzeari gehiegikeria deritzogu. Gaurko burruka
harmatua helburu globalago barruan sar daiteke ez inola ere beste
modu batetara. Iraultza biharkoa balitz, bihar edo etzirako bote-
reaz jabetzea posible balitz egokia irudituko litzauguke berau baina
nork esan dezake bere gogo eta bihotza baztertuz, botere hartzea
biharkoa dela?

Hala ere ezin kondena daiteke burruka harmatua. Hori beste
kontu bat da, hori ere miopia edukitzea izango litzateke. Oso ar-
rigarria dateke arlo honetan dauden posibilitateak baztertzea.
Fronte guztiak beharrezkoak dira baina bata ez du bestea atrofia-
tu behar. Argitasun eta errespeto handia eduki behar du modu
bakoitzak bere bide berezian askatasun osoaz saia dadin, zeren
bata ez baitago besteren kontra. Forma batek bestea baztertu beha-
rrean konplementatu egiten duela ondo jakinik. Dena burruka
baten menpean ipintzea, bestelako burrukak hiltzea da eta arrisku
larriena, zera, objektiboki boterea indarrez hartzeko baldintzarik ez
dagoenean, egunen baten egiazki hori posible izango denean horre-
tarako ekintzak egokiak eragozteko litzateke.

E. H.

EUSKADIKO KRISTAU ELKARTEEN

II. BILTZARREA

Maiatzak 27-28 bitartean egin dute Euskal Herriko Kristau Elkarteek beren bigarren Batzarre orokorra. Aurrena Iruinean ospatu zuten, orain dela urtebete inguru. 200 lagun elkartu dira bi egunez: gaztetxoak, gazteak, eta ez hain gazteak.

Zer dira kristau elkarte hauk? Hori xe da, hain zuzen ere, aurtengo batzarrearako erantzun duten lehen galdera: "Zein gara gu?" Azken urteotako fruitua dira batez ere. Orain dela hamabi bat urte burutu zen Eliz Kontzilioaren ondoren sortuak eta indrituak gehienbat. "Kristau Elkarte oinharrikoak" izenez deitu izan dira. Orain nahiago dute beren buruak "Kristau Elkarte herritarrak" izendatzea. Izatez, Kontzilio haren ondoren kristau fedea elkarte txiki eta bilduagoetan bizitzeko eta aztertzeko jokabidea zabala izan da; eta moeta ezberdinetako eta hainbat joeratako elkarteak sortu izan dira.

Gasteizen aurten —eta ihaz Iruinean— bildu ziren kristau elkarteek *herritar* bezala kalifikatzen dituzte beren buruak. Agian bi puntu adierazten ditu kalifikazio horrek: Elkarte horien Herriarekiko eta gizartearekiko atxekipen soziala eta politikoa; eta Eliza "herritar" baten aldeko burruka. Bi alderdiok bereizten ditu Kristau Elkarteek, bestelako Kristau Elkarte oinharriko eta txikiengandik.

"Zein gara gu?" galderari eman dioten erantzunak biltzean, hauxe irakurtzen dugu, besteren artean: "Intentamos un desarrollo de nuestra fe adulta entendida como fidelidad al evangelio, comprometida con el pueblo, creadora de comunidades. Deseamos ofrecer una alternativa de Iglesia".

Hirutara edo, bil genezake aurtengo Batzarrearen asmoa eta helburua, horretarako deian agetzen denez: Kristau Elkarteon egoera ikustea; 2. Elkarteon esperientzien elkarretaratzea eta

beren elkarte bizitzaren esangura aztertzea; 3. Herrian eta Elizan duten lekua argitzea, eta Eliza herritar baten bila beren etorkizuna pentsatzea.

Aurtengo Batzarrearen ardatza, Elkartearen artean aurretik egindako galdeketa eta jasoriko erantzunen bilduma izan da. Horien inguruan eratu da Batzarrearen egitarau handiena, taldekako elkarrizketa eta azterketa bezala eta guztiekiko batzarre bezala batez ere.

BEREN NORTASUNAREN BILA

Kristau Elkarte herritarrek ez daude gaztelutan sarturik. Ez dute gazteluko segurantzirik. Elizaren eta gizartearen —eta Euskal Herriaren— burruken itsasoan sarturik, etengabeko zalantzan dabilzala dirudi. Ekaitza aukeratu dute, seguru asko.

Krisia eta *bilaketa* dira Kristau Elkarte herritarren hitzik erabilienetarikoa. Elkarte bakoitza etengabeko krisian bizi ohi da: eta krisia ez da izaten gehienetan azaleko tentsioren batetik datorrena, Elkartearen funtsak eta oinharriak astintzen direlako baizik. Eta behin baino gehiagotan Elkarkidieren batek utzi egiten du Elkarte, edota kristau fedea bera. Behin baino gehiagotan, ekaitzaren indarrez, zatikatu eta desegin egiten dira Elkarteak. Bizitza lasaia eta moteltasuna ez dira Kristau Elkarte Herritarren giro egokia; alderantziz, moteltasunak eta lasaitasunak beroriek ekarri ohi dute sarritan sako-neko krisia.

Krisiarekin batera, eta horren irtenbide bezala, Kristau Elkarte herritarren jokabide ia etengabea, bilaketa da. Bilaketaren grina dutela dirudi. Kristau Elkarte herritarren giroa ez da izaten fede modu batek eman ohi duen segurantzia eta "kristau ohiturek" eskaintzen dituzten bakea eta zihurtasuna

Bide honetatik, Kristau Elkarte herritarren baldintza funtsezkoenak ere eztabaidatzeraino iritsi dira Gasteizko azken Batzarrean: zeintzu diru Elkarte guztientzat erlijiozko eta politikazko baldintza minimoak? Euskal Herriko bigarren Batzarre honetan oraindik ez dirudi ongi argiturik dagoenik arazo hori.

Krisialdi, zalantza eta bilaketaren tartean, beren nortasuna baieztatu eta finkatu nahia nabarmena da Kristau Elkarte herritarren artean.

ELIZA HERRITARRAREN ALDEKO BURRUKA

Elkarteon segurantzia, ordea, Ebanjelioarekiko, Herriarekiko eta gizartearekiko aitortu eta bizi nahi luketena zintzotasunean dagoela dirudi. Eliza instituzionalari buruz tirabira gogorrean bizi dira sarritan: Ez dute Instituzio finkatuak ematen duen segurantzia. Horregatik Eliza herritar baten esperantzaren edo, jarri ohi dute beren "segurantzia".

Kristau Elkarteok ez dute Eliza bazterrekoak izan nahi, ez eta "nola baiteko" Elizaren izena hartu nahi. Benetan Eliza, Kristoren Elizako bezala aitortzen dute beren burua eta hori aitortzea eskatzen diote Eliza instituzional eta ofizialari.

Gasteizko Batzarrean eman zen hitzaldiak bere muina bezala hauxe erabili zuen: "Zer da Eliza izatea". Eliza instituzionalarekiko tirabiran eta Eliza "herritarri" buruzko esperantzaren beren elizartasuna definitzea eta argitzea dute agian egitekorik nagusia Kristau Elkarte herritarrek, beren nortasuna argitu eta finkatu nahian dabilzalarik. Horrela argituz joango da, baita ere, "Eliza herritarri" buruzko esperantza bera, bai eta horretarako Elkarteon egitekoa eta burruka ere.

Iruditzen zaidanez —eta Elkartearen barruan eta artean behin baino gehiagotan egiten den kritika da hauxe— Kristau Elkarte herritarrek kezkatuegi dabilzta oraindik beren nortasunaren beren barruko krisiei eta beren izaeraren eta jokabideei buruz. Sarriegi autokritiketa, autokritika eta autosatisfazioa bihurtu ohi dira Elkarteon batzarreko Herriaren, gizartearen edo Elizaren arazoak objektibatu beharra daukaten uste dut. Hurrengo urteko Batzarreko, gai objektibo baten estudioa azterketa gisakoren bat planteatu beharko litzateke: Euskal Herriaren Gizartearen edo Elizaren arazo objektiboren bat, beren fedetik eta Ebanjeliotik aztertzen saiatzera pasa behar dute Elkarteok.

"Zein gara gu", izan da aurtengo galdeketa lehena. Nola argitu, nola aztertu, nola konponbidetuz Herriaren, Gizartearen edo Elizaren halako edo honelako arazoa: honetaz planteiatzen hasi behar dute Elkarteok beren batzarreak.

OMENALDI BATEN INGURUAN

Donostian, ekainaren 3an, goizeko hamaiketan omenaldia egin zitzaion Karmele Es-
landereñori, ikastolako lanetan eman dituen 25 urteengatik, bere adiskideek eta Gor-
puztuak antolatatu diote.

Karmeleren ohoretan mintzatu
ziren Juan Barriolaren gidaritza-
leak: Kontxita Beitia, Maria Jesus
Zabaleta, Lore Goenaga, Maria An-
dres Lasarte, Pakita Arregi, Jazinto
Loren, Jone Tapia, Ramon Saizar-
Bitoria eta Jose Mari Iturrioz. Ho-
rri etorri ezina adierazi zuen eta
hori bat bidali. Nemesio Etxaniz
karmelek ere hitz batetan esan zituen
eta kanta bat abestu. Juan San Mar-
tinak Euskaltzaindiaren idazkari be-
nitoa idatzitako agurra eta Karlos
Larrazolariak bidalitako telefonema
ere irakurri ziren.

Hizlari guztiek, ikastolaren al-
deko Karmelek egin dituen lanak aipa-
tu zituzten: irakasle bezala, andere-
ñoaren erresidentzian, udalekuetan
zabal. Eta Karmeleren dohainak eta
personalitatea azaldu ziguten.

Nik ez ditut hemen gogoratu-
ko berrogeitabost urteko sasoiko
lanakume honen alde (Karmele,
1952.ek abenduaren 20an Orion
hala da) esan ziren gorantzak eta
labantzak. Aski da Karmeleren ize-
na ikastolari loturik dagoela jakitea
hasera heroiko haizetatik. Gaur San-
to Tomas Lizeoan da irakasle. Gai-
nerra antolatzaileek, eta Karmelek
bernik, ez dute omenaldi hau gehiegi
personalizatu nahi. Karmele txalo-
tza, ikastola gotortzen beren inda-
rak agortu dituztenak ohoratu eta
gogoratu nahi izan dituzte. Ikastola-
ren alde saiatu diren guztiei eske-
rroiya agertzeko modu bat izan da
omenaldia.

Horregatik ere ez da harritze-
ko behin eta berriz Zipitriaren ize-
na aipatu eta goratu bazen. Inori
omenaldirik zor bazaio, gerra ondo-

an, Iparraldetik etorri eta ahal zuen
moduan euskarazko irakaskuntzari
berrekin zion emakume honi zor
zaio. Karmele bera, Zipitria andrea-
ren ondoan egin zen andereño, Jone
Forcadak, Txillardegiren emazteak
ikastolarako konkistaturik.

Asko zor die Euskal Herriak
ikastolaren mugimenduaren haseran
egon ziren andereñoi, eta batez ere
Zipitriari. Euskara batuaren eta bes-
te zenbait arazoren inguruan sortu-
tako erizkidetasun ezagatik, eta isti-
luengatik ezin dezakegu haien oroi-
tzapenik gal, eta urtetan emandako
izerdia uka.

Andereño bati omenaldiak egi-
ten hastea ez da esanahirik gabea ni-
retzat. Ikastolak bere bidea egin du.
Gorpuztu eta gotortu da. Ezin gai-
tezke atzo goizean sortua balitz be-
zala ikastolaz mintza. Beharbada
dela hogeitamar bat urte ametsetan
ere inork ez zuen pentsatuko ikas-
tolak gaur duen hedadura eta bi-
kaintasunik har zezakeenik.

Hori pozgarri da. Nola ez?
Baina ikastolaren indartzearekin ba-
tera, problemak ere hazi direnik
ezin uka. Larritzekoa bazen klan-
destinitate giro hartan irakatsi be-
harra, libururik gabe, mahairik ga-
be, aulkirik gabe aritu beharra, hes-
tutzekoa da gaurko ikastola doto-
reetara datozen milaka haurrei he-
ziketa eta irakaskuntza egoki bat
ematea. Tristeia eta izugarria izan-
go zen poliziaren beldurrez, atea
inori ireki behar zitzaion aldiko,
haurrak etxeko gelatan sakabana-
tu beharra, eta ohe azpian edo ar-
mario barruan ezkutatu beharra.

Baina ezta ez da alaitzekoa, eko-
nomiaren erruz, antolamendu tek-
niko-egokiaren kondizioetan esko-
latu ezina; irakasleak eta materia-
le pedagogikoa, nahi adina eta
nahi bezala prestatu ezina. Ez da
poztekoa ikastoletako haur asko-
ren euskara ahulduz eta degrada-
tuz doala ikustea. Euskararen es-
trukturarik oinharrizkoenak, nor/
nork adibidez, ez dituztela berega-
natu ohartzea. Ikastolako urteak
amaitu eta euskara lardaskatu bes-
terik ez dutela egiten konturatzea.
Desafio ikaragarriari erantzun behar
dio ikastolak gaur. Hil ala biziko
larriak zintzurra hestututa daukate
oraindik ikastolak eta euskarak.

Neuri gustatuko zitzaidan
omenaldikoan, biharrari begira ikas-
tolak gaur dituen arazo larri horien
aipamena egitea. Antolatzaileek
beste eran pentsatu zuten nonbait.

Hala ere atzokoa kontutan
hartu gabe ez dagoela taiuzko biha-
rrik ba dakit. Horregatik bi egiteko
garrantzitsu ikusten ditut atzera
begira.

1.— Ikastolaren lehen urteetako
historia dokumentatua. 1965. arte
edo ikastolaren bizitza zein izan zen
jaso behar genuke. Andereñoak,
haurrak, tokiak, liburuak, laguntzai-
leak eta etsaiak, sistema pedagogi-
koa, oztopo administratiboak eta
politikoak, eta beste gorabeherak
zehatz bildu behar lirerateke. Azter-
keta honek anekdota soilaren maila
gainditu behar luke, eta dokumen-
taziorik ahalik eta handiena bildu.

2.— Hogeitamar bat urte izango da
36.eko gerrak lepamoztutako ikas-
tola ekintzari hasera berreman zi-
tzaiola. Urte asko da. Edo behintzat
nahikoz, ondorenak eta fruituak az-
tertzen hasteko. Zer gertatu da ikas-
tolatik pasatu den milaka ikaslere-
kin? Eutsi diote euskarari? Euskar-
aren nolako ezagupena lortu dute?
Idazten dute? Irakurtzen dute?
Unibertsitatera joan direnean zein
jarrera hartu dute? Ezkondu dire-
nek zein jokabide dute? Euskara
baztertu dutenek zergatik egin du-
te? Tankera honetako analisi sozio-
logikotik ondorio interesgarriak
franko atera daitekeela gaurko pe-
dagogiarako uste dut. Ikastolaren
eraginak eta okerrak objektiboki
ezagutu ahal izango genituzke.

Andereño baten omenaldiak
guzti hau adierazteko bide eman
dit. Zorionak, Karmele! Ekin eta
jarrai!

Manolo Pagola

11. hor.

"POLITIKO"AREN EGUNKARI EZKUTUA

(erdaratik euskaratua, noski)

MI DIARIO

21 de Julio: Con eso del Bai Euskarari, pues no se me ponen a hablar en euzkera, pero que se creen? asi que les he dicho lo que les tenia que decir minutos antes de salir al mundo.

Maiatzaren 12. Gogorra izan da, benetan, gaurko biltzarrea. Joan den larunbatean Carrillo-rekin Madrillen zertaz hitzegin nuen galdetu didate Komitekoek. Noraino iritsiko ote dira kankailu horiek beren ausardian? Ez dute ezertxo ere ulertzen politikaz. Isiltasuna eta izkutua behar dira aurren-aurrenik politika egiteko. Bestela dena lardaskatu eta kakaztu egiten da. Eta, jakina, ez diet ezer esan; eta ez esango ere. Gero, akordioa lortzean, orduan bai; orduan agertuko dugu jokoa. Eta orduan ere, noski, herriak uler dezakeena bakarrik. Gainerakoa orduan ere ez da esan behar.

Maiatzaren 24. Antton, Kepa eta Errodrigok baja eman dute alderdian. Carrillo-rekin hitzegin nuena azaldu ez nuela-ta, ez omen daude gertu barruan segitzeko. Hau mauka! Bakea bederen eman dezatela analfabeto horiek!

Ekainaren 3. Gaur ere eztabaida latza gure biltzarrean. Jende gutxi etorri da. Beharrik! Landabehere-ko bi gazteen heriotza dela-ta, gure alderdiak Agiri bat ateratzea nahi zuten. Hori astakeria! Gazte batzuek beren buruak alferrik hil nahi baldin badute, zer egingo dugu politikook? Bide horrek ez darama inora. Baina zozoekin gauza hauek eztabaidatzeak ez du sentidurik. Hildako bi gazte horiek "gudariak" direla esatea nahi zuten. Jakina: ez

dute lortu. Ezin dezakegu guk politika-jokoa horrelako txatxukiengatik arriskutan jar. Eta ez dugu jarriko.

Ekainaren 5. Heranegungo ukoa dela-ta, Henrikek, Tomasek eta Laxarok alderdia uztea erabaki dute. Hau bakea!

Ekainaren 18. Bart ere gogor jarri behar izan nuen gure biltzarrean. Iparraldeko ikastolak larri daudela-ta, gure alderdiak Agiri bat bederen ateratzea nahi zuten, edo Hazparneko kantaldian guretako batek hitzegitea. Zertarako, ordea? Guk hemendik ezin dezakegu han ezer egin, geure burua kaltetu baizik. Horixe behar genian, ordea! Baionako arazoetan muturrak sartu, eta gure alderdia hemen debekaturik gertatzea! Eta, gero zer? Nola egingo genuke politika?

Ekainaren 23. Mattin, Eufonio, Tomas, Elena, Sorne, Joxepa eta Eudivigis-ek baja eman dute. Españolismora lerratzen ari omen gara. Ez dute ezertxo ere ulertzen! Gu politikook gara, politikook; eta berak ez! Errealista izan behar dugu; eta, errealista izanda, Iparraldeko arazoak ahaztu egin behar ditugu. Greziak Anatolia-ko lurraldeak galdutzat ematen dituen bezalaxe, guk ere lau probintzietan jokatu behar dugu.

Uztailaren 5. "Gestorak" eta ez dakit nork deituta, larunbatean manifestazioa laguntzeko eskatu digute.

Dudarik gabe lotsagarria da gertatzen dena: Araba ere pre-autonomikoa aparte gelditu da. Baina, zer lortzen du kaleetan harrika hasita? Nork ez du amnistia politikook lortu zutela, abiltziaz eta jukutriaz; eta ez txoro-pander haiek kaleetan barrena astoarena egingo? Hain zuzen ere, kale-nahastan ero hauek ari dira dena hondatzen ekonomia, jendeen konfiantza, eta dena. Eta gu, politikook, hemen gaudela, behin eta berriz geure eginkizuna ezin eginik. Noiz geldituko ote da jendea etxean, behar bezala? Noiz egingo dute gazte txoropalda horiek egin behar dutena? Ikasi, etsaminak ondo prestatu, gerorako beren burua zaildu eta gero, bidez, taxuz, behar dena.

Uztailaren 8. Armentia, Eufrasio, Sisebuto, Jacques, Joanes, Pedro, Jaurrieta, Leire eta Erkuden-ek baja eman dute alderdian. Politika baina nunbait, "tirapiedras" izan nahiegi dute... Ondo da. Baina halako batean gomazko pelota batek begia hondatzen badie, ez datozela hona gupida bila!

Uztailaren 21. Pitokeriak gertatu izan dira maiz gure biltzarretan; baina atzokoa aparta izan da zinez. BAI EUSKARARI kanpaina dela-ta, euskaraz ez al zaizkit ba hasi Jon, Iboneeta Luziano? Argi eta garbi esan diet esan behar zitzaiena: "El problema del vascuence es un problema político. Dejé-ros de chorradas voluntaristas". Ez dute batere ulertu erantzun didatenaz (hitz batzu bakarrik, erdaraz botaiak: diglosia, soziologia, eta abar. Hori al da euskara batua?...). Gogor jarri behar izan dut: "Esto no es una academia de lenguas. Aquí estamos unidos para hacer política". Eta hau entzutean, altxa eta joan egin dira hirurak.

Uztailaren 23. Jon, Ibone eta Luzianoren eskutitz bana hartu dut. Baja eman dutela! Ongi egin dute. Sekula ez dute ulertu politika egitekotan, euskararen arazoa mingarri izanik, aldi batera utzi behar dela. Euskara gero ez gaur, ez inolaz ere politikaren kaltetan.

Abuztuaren 6. Atzo ez zen biltzarrean inor ere etorri. Baina, egia esateko ezer galdu ahal dugu? Ez dut uste. Aski izan dira, benetan, entzun diren txorakeriak. Ez biltzea hobe, horretarako. Orain bai. ORAIN HASIKO NAIZ POLITIKA EGITEN!! Hau poza!

Bihar Madrillera noa, Carrillorekin afaltzera. Etzi bazkaria Fraga-rekin; eta etzidamu Afganistan-era, "Conferencia Mundial de la Energía" delakora beste 7.500 politikurekin. Horixe biltza politikoa!

Baina dohain hau, hortik zehar ezin badaiteke ere, ez zaio edonon eman. Eta hauxe da kakoa!

txillardeg



ZANU alderdiaren delegazioa Iruinean.

Orain dela denbora gutti, Afrikako Zimbabwe-ko ZANU mugimendua etorri zen Iruinera. ORT alderdiak gomiatu zuen mugimendu hau Espainiari eta Euskadira etortzera, eta adiskide jatortzat hartu zuen alderdi iraultzaile honek Zimbabweko mugimendua. Madrildo jauregi eder-politikoetatik Euskadiko udaletxera ekarri zuen eskutik.

Oaina burura datozkidan dudamudak ez dira gau aspertu batetako kezka politiko-existentialistak. Hona hemen elkarren segidan: ZANU (Zimbabwe-ko Afrikar Batasun Nazionala) mugimendu harmatu eta gerrileroa da. Bere herriaren independentzia nahi du, eta horregatik eta horretarako egiten du borroka harmatua.

ZANU mugimendua horrelakoa baldin bada, eta azpimarratzen baldin badut harmatua dela, orduan, nola kristo gertatu daiteke ORT alderdiak lagun urkotzat eduki dezala eta babes dezala?

Euskadin ere, urrutira joan gabe, ba da mugimendu harmatu bat, eta honek, ZANUren era berean, Euskadiren independentzia nahi du, eta horregatik eta horretarako egiten du borroka harmatua.

Orduan, zergatik ez du onhartzten, edo eta ZANU bezala hor zehar paseiatzen adiskide umil modura, besterik ez bada?

ORTkoei entzun ohi diet biolentzia harmatua desegokia dela Euskadin, arbuigarria. Ederki, errespetatzen dut horien iritzia. Baina, zergatik, bada, da zilegi Afrikan? Afrika oso uruti dagoelako agian? Ala, borroka harmatua egiteko "kondizio objetiboak" ba direlako, hala hirugarren mundukotasuna nola kolonialismoa, zein beltzatasuna?

Erantzunik ez dut, baina ene ustetan, paretasun handiak ditu biolentzia harmatuak nazio ukatu guztietan. Zeren, hemengo demokrazia izpien ditzirak salbuespen, egoera berdintsuak dituzte Zimbabwek eta Euskadik, oin-harrian bederenik.

Baina nola eta ez dudana analisi ez azterketa politiko sakonik agertzen lerrootan (giza pentsamenduak bai) ez dut leihoz kanpora botatzen alderdi politikoen egokitasun interesatua, hemengo borroka harmatua eta afrikakoa on denik pentsa ahal dezaten.

Ez diot biak on direnik, txartzat ere ez ditut jotzen, baina garbi dudana zera da: iraultzaileen borroka harmatuak, berdin hemengoak nola Afrikakoak, ardatz eta helburu antzekoak dituztela, batez ere nazio ukatuaren zainetik jaiotzen eta zuzpertzten direnek.

Zoritxarrez, harmatuaz gainera, biolentzia klase asko baita zabaldurik gure poesia guttiko eta politika askoko mundu honetan. Eta lehenbizi aipaturikoa ez da gaiztoena.

EUSKADIKO FUTBOL EKIPOA

Azkenean eliminatu du bere burua Espainiako futbol ekipoak, Argentinako mundialean. Espero ere espero baitzen horrelakorik gertatzea. "El honor nacional y la defensa de la enseña española han quedado salvaguardados en alto pabellón" esan zuen irratiko komentaria batek. Horretara joan baldin bazen ekipoa eta bere lana horrekii bete baldin badu, on dakiola.

Dena den, nire esperantzak hurrengo mundialean ezarririk ditut. Agian, Euskadik bere ekipoa aterako baitu, Eskoziak Bretaina Handian egiten duen bezala. Baina ametsak amets direnez gero ezker abertzaleen artean, eta oso guttitan errealtate, PNVrengana eta beste alderdi majoritariengana joko dut Euskal ekipo baten eske. Baldintza bat ipiniko nieke, hala eta guztiz: ez ditzaten "kontsentsuz" aukera futbolariak, zeren, orduan, bi milagarren urtea ailegatuko bailitzaiguke.

Kontuak kontu, kontzertu ekonomikoak errebindikatu dira Bilboko kaleetan, eta PNVk eraman zuen jenderik gehiena. Larunbat ona zela festa egiteko edo, besteak hondartzetan siesta egitera joan izan ziren.

Siestarik egiten ez dutenak gartzetako presoak dira. Zulo egin eta zulo egin, Carabanchelgo eta Modeloko ihes-saldiak marka hausten dituenetakoak dira.

Hala eta guztiz, presondegitako zuzendari orokorra, den García Valdés jauna batetik bestera dabil erreforma egin nahiean.

Baina guttienez Espainiak irabazi zion Suezari futbol-leko mundialean, era presondegietako erreforma ahantz daiteke bulada batetaz.

Harrigarria izan zena ere, Euskadin jende asko begi belarri zegoela telebistan.

Ezetz, ezetz! Alderdi politikoez ez dutela asmatzen alternatibekin! Futboleko oin-harrituriko alderdi politikoa egin behar dela!

Euskadiren independentzia edo autodeterminazioa edo sozialismoa edo liberalismoa futbol zelaietatik pasatzen da. Eta ez baldin bada pasatzen, oso bertatik ibiliko da.

Iosu Alezuri

SAN FERMINAK EUSKALDUNTZEN ARI DIRA

Bai, Iruineko San Ferminak gainean ditugu. Euskal Herri guztian, eta mundu guztian hain ezagunak diren festak gainean ditugu.

Aurtengo ferietan progreso onak ikusiko ditugu. Nafarroa Euskadi den ala ez probleman, Iruineak garrantzi handia du, eta Iruineko peñek ere bai.

Iruinean hamabi "peña" (talde) dira, eta tradizio handia dute. Nolabait esateko, termometro bezala egiten dute. Jende normalaren termometro bezala egiten dute.

Aurten, urtero bezala, peñak (taldeak) eta udaletxea askotan bildu dira, festetako programaketa egiteko. Baina azkenean, udaletxeak bere aldetik prestatu du dena, peñekin (taldeekin) kontatu gabe.

Udaletxeak prestatu duen programaketa oso ona da. Aurten arte, Iruinean ez zen kultural aktibitatearik egiten, baina 1978.ean kultural programaketa oso bat sartu da festetan.

Eta oso inportantea! Programaketa hori euskal kulturaren eta kirolen demostrazio bat da.

Aurtengo San Ferminetan, zazpi miloi gastatuko dira euskal aktibitateak prestatzen. Diru hori udaletxeak pagatzen du.

Guzti hori oso ongi dago, baina taldeak kexu dira. Arrazoez kexatu dira: programatzeko mementuan ez baititu kontutan hartu udaletxeak.

Hala eta guztiz, taldeak euskal aktibitateen alde daude.

Horregatik, uztailaren lehenean, larunbata, ikaragarriko jaialdi bat antolatu dute, Arturo Kanpion akademiarekin batera.

Taldeak eta Arturo Kanpion euskal akademiak erdi bana doaz.

Jaialdi horretan, euskal kantariak arituko dira; euskal kirola izango da; eta zezenak ere izango dira.

Beste alde batetik, taldeek barraka bat prestatu behar dute. Zihur naiz, barraka horretan euskal giroa sortuko dela.

Zorionez, Iruineko taldeen termometroa euskararen eta euskalduntasunaren aldekoa da.

Azkeneko urteotan aldakuntza inportante bat nabarmendu da peñetan. Lehen, ez zuten euskal kutsurik. Orain, aldiz, euskaldun sentitzen dira. Gainera, taldeetako gazte anitz euskara ikasten ari da.

Benetan pozgarria.

Eta guzti honi erantsi behar diogu, Udaletxeak ere euskal gauzak antolatuko dituela. Egia esateko, presio asko izan da kontzejalen artean, baina azkenean, programaketa aurrera atera da. "Vasconavarro" bezala kontsideratuko ditu udaletxeak, organizatu dituen aktibitateak, baina hala ere, pozgarria da.

Datorren urtean gehiago.

Iñaki Zabaleta



Euskal Kultura eta kirolen agerpen bat aurtengo San Ferminetan.

Hiztegia:

erdi bana = a medias, moitié-moitié
sortu = originarse, crearse, créer
aldakuntza = cambio, changement
nabarmendu = distinguirse, notarse
erantsi = añadir, ajouter

MARZINGER Z EUSKAL UMOREETARIK POLITIKOENA

Marzinger Z gure jauna zenbait dizipulorekin konpainia onean zegoelarik fariseo eta antzeko mihi gaizto batzu bere noizbehinko eginkizunak utzirik hurbildu eta zirikatzeke asmoarekin honela galdetu zioten:

—Jauna beti esan duzu batasuna, baina begira orain zer pasatu den, beti errepikatzen duzu iraultza-ren erroilua, beti kapitalismoaren deuseztatze kronikoa, beti masa, baina hots egin nizun lehengo igandean telefonotik eta zure zerbitzari automatikoak Lekeitioko hondartzan aurkitzen zinela esan zidan. Geroago, zure ama zapata berriak erosten ikusi genuen, zure anaiak hirugarren faseko topaketak egiten ikusi ditut eta, txarrena, zure emazteari munduko futbol txapelketa gustatzen zaio. Esaiguzu beraz, noizko da iraultza?

—Fedegabekoak, ez al dakizue Euskal Harri honetan Aresti eta zugadietarako tokirik ez dagoela? Harritzen al zarete, harriak ere ez harritzen ez direnean? Zertarako nahi duzue abstraziorik? Ene bihotzak eta babapuntak ez zuen honelako zatiketarik espero. Bene benetan dirautzuet, urdaiazpikoaren aurrean ba dira azpikoz elikatzen direnak eta urdaila edo morrailaz bakarrik konformatzen direnak. Urdailazpikoaren ebakitze problema humano honetan azpia eta urdaiaren hautatu beharraren aurrean ipini nautenean ni,... Peru Abarkarekin, pernila hautatu dut horrela esan baitzaio beti jamoiari eue herrian.

—Baina, jauna, kontsumozko gizarte zentralizatu honek erantzun politikoak behar ditu, alde guztietatik atakatu egin behar zaio, ez da ezer desaprobatu behar, dena baliagarria da, horretarako ados geratu behar dugu, ez al zara ados geratzen gure antolakunde berriarekin?


—Geratu!, ni ez naiz inorekin geratzen, lasai bedi Eguzkitza Alemaniakoa, egoteko nintzen baina ez naiz geratu, ez zait geratzea oso dialektikoa eta gramatikala iruditzen. Eta nola egongo nintzateke hire antolakunde superdemokratiko eta superzentratu horrekin ados? Nire etxeke ateak beti zabalik egon dira. Ezkerraldean anarkistak, libertariak, akreatak

sartzen eta ateratzen dira eskumaldean berriz atea hixteko baimena eman dut zentralismoaren zuloetan amil ez gaitzen. Gogora zaitez berehala, testimonio ematera etorri natzaizue mundu honetara eta ez besterik. Jakin ezazue beraz pernilaren erreinu honetan ez da urdaiazpikorik sartuko.

—Baina jauna, ez diozu gure galderari erantzun, zenbat dizipulo geratu da zurekin konforme? Zer eta nola egin behar da botere hartzea?

—Ez dit horrek axola, lehen nengoen unibertso zabalean nago, masen aurrean, masa erakundeetan, masa masifikatuen masokismoan...

Hortxe zegoelarik, erdaldun batek ia pastela egosteko laberik geratzen zitzaion galdetu zion, orea eta masa zentzua elkar nahastuz seguraski.



—Betiko belarri motzak! ez al dakizue bi labeen artean dauden ezberdintasunak? ez al dakizue altxagarririk gabeko ogirik ez dagoela. Gu gara disoluzio honen soluziobide bakarra... *Une honetan supermarzinger Zetak konstituzioa, burjesiaren zafraldi antolatuak, langileriari egindako maneiak gera, petrifika eta instituzionaliza zitezkeeneko arriskua ikusi zuenean martxan jarri zuen bere 600 deskapoteblea, bi ateduna, eskuinekoa hitxirik eta bestea beti zabalik, eta partitu baino lehen ondokoak esan zizkien:* ez ezazue nire aita gomaguztiduna aserre, bere pazientzia ttikia da baina bihotza oso luzea du. Alde hemendik traidoreak, aldaketa synkrokikorik gabeko kotxe hau martxan jarri behar dut eta primeran jarriko dut beti bezala, oinezkoak eta oinezko herri honen harriak zarataren bidez beldurtzeko. Pasakeran mundu guztiko burgesiak ikaratuko ditugu, baimen legalarik gabeko akelarre horretan ohosturiko adar superpotroduna izango da gure arma berria, botazioen kontra ibili garenok superbotazio orbitala egiteko prest gaude.

Zarata superiraultzaile batetan, marzinger Z-k mundu izorratu hau abandonatu egin zuen eta izar bideetatik nonbait izarren artean gatazka unibertsararen hariak prestatzen ari da. (*jarraituko du*)

Sir Jauna

15. hor.

"EUSKADI HERRI BATZARREA" IPES-EKOEN LIBURU BERRIA

Ezaguna da gure historian zehar udalek jokatu duten paperaren garrantzia. Eta municipalak azkenean inoiz iritsiko direlako esperantzaz, hainbat eta hainbat herritan ari dira udal hauteskundeak prestatzen, eta lan hauetan sarturik daudenei bereziki doakie IPES kolektibokoek egin eta ZYXek argitaratu berri duen liburu interesgarri eta baliagarri hau.

Liburu hau egiteko parte hartu duten kolaboratzaileen artean, gai hauetan espezialista ezagunak direnen zenbait izen agertzen dira, hala nola Juan Luis Ibarra, Bittor Urrutia, Jose Luis Lizundia, Xabier Pérez de Heredia, Guillermo García Lacunza eta Patxi Letamendia "Ortzi".

Liburuan zehar, udaletxeen ikuspegi historiko bat emateaz aparte, gaurko egoera berrian beren eginkizuna nolako izan daitekeen aztertzen da, zenbait hiri eta herri desberdinetako problematikak eta esperientziak analizatuz eta beti gestio herrikoiaren garrantzia azpimarratzen digutela.

Zoritxarez halako lanetan normalki gertatzen denez, liburua erdaraz datorkigu, Lea Ibarreko herriei buruzko lanaren salbuespenaz, hain garbia ez dena. Lan honetan erabiltzen den euskarak batua izan nahi luke, agian, baina ez dira Euskaltzaindiaren batasunerako arauak betetzen eta gertatzen dena bizkaiera eta batuaren nahaste bat da.

COLECTIVO IPES
EUSKADI
HERRI BATZARREA
Asamblea de pueblo y política municipal



zero zyx




TXABI ETXEBARRIETA-REN OMENALDIAZ

Txabi Etxebarrieta, ETako lehen erahilaren heriotzetik hamar urte bete dira ekain honen seian. Eta Txabiri omenaldi bat egin nahi izan diote Tolosan, hil zuten tokitik hurbil.

Baketan ospatu behar zatekeen omenaldi honetako protagonista nagusia, zapaltzaileen bortizkeria zapaltzaileen bortizkeria probokatzaileria izan dugu berriz ere, eta balak, gomazko pilotak, beldurra eta kolpeak bertara bildu zirenentzat.

Txabiren "deliktuak" amnistiaturik dauden garai honetan, nola da posible Estatuko, ezen ez Euskal Herriko, indar harmatuen aldetik halako erantzuna? Ala amnistia horren balioaz agintariek berek ere sinesten ez dutela pentsatu beharko dugu?

Argi dago Euskal Herrian bakerako kondizioak zeintzu diren. Monzonek Tolosatik gogorarazi digunez, hemen ez da ezer funtsean aldatu eta zapaltzaileen legeak, instituzioak eta indar harmatuak erabat aldatzen ez diren bitartean, Euskal Herrian ez da ez demokraziarik, ez autonomiarik eta ez bakerik izango.



LOIOLAKO HERRI IRRATIA BERRIZ ERE ZUTIK

Ihazko ekainean ohizko "inkontrolatuek" jarri zioten lehergailuaren ondorioz, Loiolako Herri Irratia erabat suntsitua gertatu zitzaigun. Orduko atentatuak sorturiko kalteak sei miloitara iritsi ziren.

Ezaguna da nolako jatorri jokatu duen irrati honek Euskal Herria eta bere hizkuntza eta kulturaren alde, eta ezin dezakegu gauza bera esan gure herrian dauden irrati gehienei buruz.

Poliziak kasu hauetan berriz gertatzen den legez, inbestigazio sakonak egin arren, ez dugu oraindik lortu atentatuaren erresponstabileen izena jakiterik. Hala ere, beren helburua ez zutela lortu esan dezakegu. Herriak ezin zezakeen onhar ahots horren isilaraztea, eta bere ahalegnari esker, berriz dauzkagu zutitza Herri Irratiaren instalazioak Itxumendin. Berreraikuntza-aren kostuak zortzi miloi baino gehiago izan dira eta dena, errekaudazioaren bidez batu dute.

Bihozkie bada, informazio gintzan lankide ditugun irrati honen lagunei gure zorionik beroenak eta urain arte bezala, Euskal Herriko Irratigintzaren bidetik aurrera segi daitezela.

GURE LURRAREN DEI ERDALDUNA

Gure aldizkari trixte honen horrialdeetatik sarritan kritikatu egin dugu EGIN, euskarari, hizkuntzabitasun dexente batetarako behar den tokia, ematen ez diolako.

Ba, EGINeko euskara gutiegia dela baldin badiogu, ez dakigu zer esan ere, DEIA eskuetan hartzen dugun bakoitzean, zeren egunkari honetan euskarari ematen zaion garrantzia hain da handia, non ez baita gure hizkuntzaz bere informazioaren % 2a baino gehiago izatera ere maiz iristen. Eta hau ezin lotsagarriagoa da bere euskalduntasuna aldarrikatzen duen informabide batentzat.

Asperturik gaude euskaldunok modu honetako jokabideetat. Izugarriko deklarapen onak euskarari dagokionez, baina gero, hitzak hitz direla eta ez gara sekula ere hortik aurrera pasatzen. Guk geuk luraren deirik sekulan entzun ez dugunok ezin esan dezakegu DEIArena hori den ala ez, baina argi dago euskaldun herriaren deia behintzat ez dela.

DEIAtik hartuta.

ERDARAREN NEURRIA

IRAKURLE batek idatzi dio egunkari honen zuzendariari, orain arte euskaraz bakarrik idazten zuten kazetari hau orain erdaraz ere idazten hasi dela, eta, nahiz eta gauza interesgarriak idatzi, erdal gramatikaren aurka sekulako hanka-sartzeak egiten dituela. Bapo.

Gure irakurle zorrotz honen ustean, hamabost urtetan euskaraz bakarrik idaztea ez da nahiko arrazoi orain erdaraz gaizki egiteko. Bere iritziz, gendaurrean eta egunkari batean idazten duen kazetari bat lotsatu egin behar litzateke hanka-sartzeak egiten. Eta, bestetik, hanka-sartze hoiek kazetari honen kultura eza erakusten dute.

Irakurleak hiru oker (eta hirutatik bat imprimategiko akatsa da) aurkitu zituen, baina hala ere nahiko arrazoi iruditu zaio hori guzti hori esateko.

Gauzak txarto egitea ez da sekula justifikagarri, baina hiru huskeriagatik horrelako bonbaketa egiteak zer pentsatu ematen du, karta horren atzetik ez ote dagoen dirudien baino zerbaiz gehiago.

Dena dela, hiru puntu daude hor kontutan hartzeko:

Bat. Itxura denez, gaur eta hemen, erdara on-ona ez egitea lotsagarri da. Euskaraz tutik ez jakiteagatik, osteraz da inor kezkatzen.

Bi. Erdaraz hanka-sartzeren bat edo beste egiteak, kulturarik ez eukitzea san gura du. Euskaraz ez jakiteagatik, osteraz, ez da ezer pasatzen.

Hiru. Erdaraz ez badugu ondo egiten, gu tontoak garelako da, ez erdara zaila delako. Euskara ikasi ezinik dabilzenak, osteraz, oso argiak dira, eta zaila dena euskara da.

Hauxe marka! Ez dira konformatzen erdara eta euskara bi metro desberdinez neurtzearekin. Horrez gainera, metro zuzenena erdararena da. Eta holaxe egiten da historia. Eta holaxe idazten dira kartak. Eta holaxe dabil jendea kalean, pavo-reala baino harroago.

AMATIÑC

E.U.T.G.-ko HIZKUNTZESKOLAKO IKASTARO AZKARRAK

E.U.T.G.-ko Hizkuntzeskolak, uda oro bezala, bere ikastaroak antolatu ditu. Irakatsiko diren hizkuntzak *alemana, euskara, frantsesa eta ingelesa* dira. Ikastaro hauek zortzi aste iraungo dute (uztailaren 3tik abuztuaren 25 arte) eta eskolak egunoro emango dira.

Izena emateko eta xehetasun guztietarako: Hizkuntzeskolako Idazkaritza, arratsaldeetan, 5etatik 8,30 arte.

Matrikula epea: ekainaren 1etik 23ra.

"RESURRECCION M.^a de AZKUE

LAUGARREN LITE- RATURA BATZALDIA

OIÑARRIAK

1 Diru-saria

Euskal-Kontakizunen "Resurrección María de Azkue" literatura Batzaldi onek, 200.000 (berreun milla) pezetako saria izango dau, sari zatitu eziña, eta saridun bage lotu ezin leitekeana.

2 Sarpide

Neurketa onetara, edozein kontakizun (elebarri labur, ipuin, asele, azalketa) ager leiteke, baiña urrengo arauok bete bearko ditu:

a) Euskeraz idatzia izan, egillea edonungoa izan arren.

b) Edozein euskalkita idatziak izan leitekez. Epaimaikoek lanaren balioa aztertuko dabe, bere mamiña eta erabillitako izkerea ta ulerrerrreztasuna aintzat arturik.

c) Lanak, berekiak ta argitarabageak izatea.

d) Epai emoteke leokean beste batzaldi edo eleder sariketaren batera, izen berberaz ala bestez, bialdua ez izatea; orrelan balitz, idazlea sariketa onetatik bazter-tzea izango litzateke, bertatik.

e) Gaia, bakotxak berak gura dauana.

f) Idazleak, lan bat ala geiago bialdu leike Batzaldira, bere izenez ala izenordez siñatuak. Bear izana balitz, ezaugarria azal txiki batean gordeta bialdu.

g) Batzaldi onetara lanen bat ekarri ezkeru, egilleak ezin izango leuke ez bere lanik eskatu. eta ezta saiketarik aldegin be.

3 Agerteka

Taxuari dagokionez, sariketako lanen baldintzak:

a) Makiñaz idatziak edo makiñaz berregiñak, lerro

bitarte bikoetan eta orrialde batez soillik.

b) Lan bereki bakotxeko iru aldaki bialdu, liburu antzean gertuak ala josiaska-tuak.

c) Egillearen izenez siñatuak ala izenordez (argibidea, azal itxian berezi) eta egillearen bizitokia edo norajoa, argitu bearrik balitz, eta baita adierazoteko be.

4 Luzerea

Ez 100 (eun) orrialde baiño gitxiago, esandako neurritaxuan.

5 Noizko bialdu

1978 urte onetako bagillaren 30 gna. baiño leen.

6 Nora bialdu

Caja de Ahorros Municipal de Bilbao, Gran Vía, 23, Bilbao (1) eta ganera auxe idatzirik: "Para el 4.º Concurso Literario "Resurrección María de Azkue" de Narra ciones en Vasculencia".

7 Epai-maikoak eta epaia

Elederrean, izkeraketan eta irizkintza arloetan gai diranak izango dira epaikiariak; Batzaldi onetako epaia emoterakoan adierazoko dan nortzuk izan direan. Epai onen aurka ezin leiteke iñora jo.

8 Aipamenak

Batzaldi onetako lanetarik, Epaimaikoek diruzsaritua bat bakarra izango dan arren, euren egoki bederitxoe, deduzko aipamen bata ala geiago ein leikeez, sarituteke lotu direan kontakizun batzuen balioa agiri-agirian jarteko.

9 Lan saritua

Liburuarekiko jabetasuna eta argitaratze-eskubideak oso-osoan egitearenak diraute. Bilbao Aurrezki Kutxak, sariketa ebatzi ondoren, bein urtebete, igaro ezkeru argitarapen berezi bat agiteko eskubidea gordetzen dau.

10 Saritu bakoak

Biurto egingo jakez egilleei eta onek ala ordezkariak eskuratu aal izango ditue.

11 Artu-emona

Artutako lanetaz ez da idatzizko artu-emonik izango.

12 Lege barrutia

Sariketa onetara datozenak, beste barrutiak lagata, Bilboko Auzitegien eskur lotuko dira.



Gure lantegietan ere Euskaraz.

EUSKARA baserri hizkuntza
dela uste duenik ba da oraindik ere.
Baina, hiru euskaldunetarik bi,
kâlean bizi gara.


Beraz, gure kaleak EUSKALDUNDU behar ditugu;
lantegiak, adibidez.

Oiñatiko FAGOR INDUSTRIAL-ean
egin duten bezala, makina izenak, lantokiak,
bulegoak, zerbitzu orokorrak,
aldagelak etab., euskeraz ezarri.

Folklore hesparruko loturatik egunorotako
bizitzaren maila guztietara ekarri eta egokituz.

Izan ere,
EUSKARA BIZI BAIT DA, eta zorionez bizi!

Euskara indarberritzearen alde
CAJA LABORALEko gizarte ekintza saila.



MATURANA REKIN HIZKETA

MATURANA JAUNAREKIN EGINDAKO ELKARRIZKETA HAU IRAKURTZEAK MEREZI DUELA BENETAN USTE DUGU. BERAREKIN ERDARAZ HITZEGIN DUGU. HALA ERE HITZEN ZENTZUA ERRESPEATATU DUGU. EZ DUGU BAT ERE ALDATU. BIEN ARTEKO EGINDAKO PAKTUAN ANAITASUNAK EZ LUKEELA IDEOLOGI BALORAPENIK EGINGO ESAN DIO. HORREGATIK NEUTRALITASUNEAN DOAKIZU.

ANAITASUNA: Sozial komunikabideek berri baten kultural eta hizkuntzan parte handia hartzen dute, Euskal Herriko kasuan baina, bide horiek gure kulturari kalte egiten diote, euskal komunikabideetat mintzatzean Eusko Kontseilu Nagusiaren kontseilaritza batek kontrolik edukiko al du Estatu-aren egozkion komunikabideetat? Nora-berriak ba al daukazue? Ba al dakizue zera eta nola jo?

MATURANA: Beno, Euskal Herriko estatual irratia eta telebistari dagokio-enez transferentzietarako batzordean ministroalgoari zenbait transferentzia eratu egin zaio. Ni hemen bi epe eratuak esango nuke, lehengo hobekuntza den guztia hobetu beharko litzateke. Telebistaz mintzatzean honek eratu nahi du, Bilboko zentruen estu-erak hobetzea, plantila ere gehitu behar dela. Bigarrenez espazioak, eratu oso tikiak baitira eta programa ere gehitzea, ordu erdi bat gehia-er esaterako, eta ordu erdi horren eratu euskara sartuko genuke, eratu minutuz gutti gora behera. eratu hartu behar dugu Bilboko telebista honek ez duela bakarrik Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba harrapatzen, eratu, Nafarroa eta Logroño ere eratu, patzen duela uste dut. Orduan eratu honekin kontu edukiz, UHFko

kanalaren bidez bi orduko espazioak ipin genitzake, informazio gehiago emateko, programa kulturalak egiteko. Guzti hau aurten egin daitekeela uste dut. Bigarren epe batetan Gipuzkoako diputazioak eskeini dizkigun terenoak aprobetxatuz, Jaizkibelen programak produzitzeko zentru bat eraiki daiteke. Zentru honetan ere zine eskola bat sartuko genuke, zentru berbera aprobetxatuz. Hau duzu beraz gure etorki- zuna hurbila gutti gora behera.

Parlamentuan irratia eta telebistaren estatutua diskutitzen ari da... ez, ez da diskutitzen ari, gobernua egiten ari baita estatutua eta asuntu honetan parlamental kontrola eduki beharko

genuke. Telebista ezin daiteke kontrol tekniko batenpean soilik utzi, oso garrantzi handia du Telebistak beraren bidez masak eragin daitezke eta.

A: Azken hogeitun urteotan Telebistak Euskal Herria erdaldundu du, berak ideologia hestu bat zabaldu du, hizkuntza batetan soilik mintzo. Lehengo egunean, Donostian, prentsaren informazioarekin egindako bileran, elebitasuna zela kontseilaritza honen helburua aipatu zenuten. Guzti hau, zure hitzok gogoratuz, "se llevaría hasta las últimas consecuencias" esan zenuten. Gero, bakoitzari nahi duen hizkuntza hitzegin dezan askatasun osoa eman- go zenietela esan zenuten. Nahi al duzu politika berri hau, pixkat gehiago zehaztu?



Telebista honek ez du bakarrik Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba harrapatzen

M: Bai, izan ere, nik askotan esan dut guztiz konbentziturik gainera, herri honetan benetako elebitasun bat egon dadin lortu behar dugula. Euskal hizkuntza, euskara, aspalditik bazterturik egon da, urte luzeetan zehar zapalduta eta desager dadin beraren atzetik ibili da. Jakina, hau ezin daiteke aurrera jarrai. Irakatsi den euskara ikastoletan egin da. Ikastolak herri zentruak dira baina zentru pribatuak dira ere... orduan denek, langile kanpotar horiek ezin izan dute zentru hauetara joan, beharrezkoa izan dute eskola publikoetara jotzea eta bertan, noski, euskara ez zen irakasten. Guk uste dugu euskara zentru publiko guztietan irakatsi behar dela. Alde batetik euskara eta bestetik euskaraz, baina hau noski prozesu baten barruan egin behar da. Kostatuko zaigula ba dakigu, baina lortzera beharturik gaude. Ni ez naiz maximalista, ez eta guttiago ere, ekintza hau sei hilabete barruan ezin daitezkeela aurrera eraman pentsatzen dut, oinharriak ipini behar dira. Horregatik pixkanaka baina sendo ekin behar zaio guzti honi. Euskara, EGBko zentru eta ikastetxe guztietan irakatsi behar da. Alfabetatze kanpainak egin behar dira; pertsona nagusientzat, euskaldunentzat eta erdeldunentzat batez ere. Baina hemen, jakina, zera topatzen dugu: Egongo da zenbat pertsona zahar, euskara ikasi nahi izango ez duena eta nik uste dut errespetatu egin behar dela askatasun hori. Hontaz oinharritzkoa dena zera da, giro berri bat sortzea, hori da garrantzitsuena ene ustez. Euskara hitzegiten ez dutenek euskara ikas dezaten, euskara beraien kontra zihoala sentitu duten horientzat giro berria eman diezaiokigu... Nik ez dut esaten guzti hau lortu-

ko denik. Kontseilaritza honetatik egin dezakeguna zera da, oinharri hau ipintzea, gero, etorkizun batean denen laguntzarekin, diputazioekin, Eusko lendakaritzaren laguntzarekin eta alderdiekin desarroilatuko da. Ez gaudela kultura bi elkarren kontra jartzeko prest. Bata, euskalduna, botagailu moduan, harmatzat hartuko dena. Euskara ikasi ezin izan dutenen kontra erabiltzeko. Hemendik kontrakeria bat aterako litzateke baskoen artean. Horregatik, kultura biak bultzatu egin behar dira, baina euskara gehiago bultzatu behar da gaur, noski; bere egoera tragikoa dela eta.


A: *Konstituzioan euskara ez da derrigorrezkoa, erdara aldez bai. Nik ez dut uste egoera horretan berdintasunik egon daitekeenik, ala bai?*

M: Beno, euskara ez da derrigorrezkoa. Konstituzioak dioskunez, errejioetan eta nazionalitateetan halere derrigorrezkoak izan ahalko dute. Nik uste, egin behar den autonomi estatutuan puntu hau diskutitu egin behar dela noski. Nik, dena den, haseratik eskoletan behintzat euskara derrigorret inposatu daitezkeela pentsatzen dut. Lehengo egunean gure printzipioen deklarapenaren arauera alde batetik kontutan hartuz, bestaldetik ere konstituzio hau kontsensuan oinharritzen dela jakinik, eta azkenez indar politiko asko dagoe-lan esanez autonomi estatutuak, guzti hau lortuko duela uste dut. Noski honetan ere ez da gehiegikeriarik egon behar, eskuindar espainolistak aterako lirateke garaile bestela.

A: *Benetako politika bilingual batetan ez da aurkitzen soilik eskolen problema, oraingo komunikabideen arazoa*

ere sartzen da. Euskal Herriak kultura linguistikoa ere jasaten du beronek horrela, modu berdinez, gora behera, segitzen du. Beste batzuetan, Suitza, Finlandian, Tsekoslovakian, Belgikan, arazo hau baina bait konpondu dute. Hemen ematen den zapalkuntza, herri honetan jartzea pentsaezinezko gauza izango litzateke. Hemen dauden zentuaekin eskuetan, ehuneko 23, 27 delako horiekin, sobera izango zateke entzun ikusteko komunikabide guztietan minoriaren hizkuntza erabiltzeko. Horrela gertatzen da edozein herri zibilizatutan. Minoria guztiek ondak, frekuentziak, emisioak kateak dituzte. Nik ongi topatzen dut benetako politika bilingual bat horregatik ez dugu ahaztu behar izango hau desarroilatzen den bitartean hemen, benetako herri bat bizi dela egunero euskaraz desarroilatzen den komunitate bat. Zuk bidezko topatzen duzu bitarte honetan guk euskaldun inolako komunikabiderik ez edukitzea. Ordu eta programa laburrei begira egotea, euskal texturik gabe, euskal libururik gabe, euskal filmerik gabe. Eta euskal zinemari dagokionez ez da esaten ari batzuk azaltzen duten bitartean, hori, hau da, euskara "gure gure zetarako" erabili beharko litzateke bereziki. Nik "Pariseko azken tangua edo eta "Hirugarren fasearen topaketak" eta holakoei buruz galdetzen ari naitaiz. Bitarteko egoera hau bidezkoa dela iruditzen al zaizu?

M: Bai, aipatu duzun arazo inportantea da, baina halere eskola eta alfabetatze kanpainak beharrezkoak dira eta nik honi deritzot inportanteena. Beste gauza bat dituzu euskal komunikabideak, prentsa baten ere. Zer edo zer egitekotan Estatu prentsaren bidez hasi beharko ginateke, aintzinako "prentsa del movimiento"ren bidez esaterako, baina gero egin gainerako prentsa pribatuak dauzkagu. Hemen eskuineko prentsa daukagu nazionalismo JELzalearen prentsa prentsa abertzalea ere, baina esan



—Beno, beno, segi aurrera.

A: Ez dut uste elkar loturik egon beharko zuenik izate hori... Herri askotan estatal boterea, sozialistek gutti gora behera kontrolatzen dutelarik praktikara eraman dute printzipio hori. Hau da, komunitate ez berdinak dauden lekuetan entzun ikusteko medio guztiak beraien zerbitzuean ERE jartzen dira. Zergatik hemen ez? Zergatik ez zaigu eskeintzen euskaraz soilik erabiltzeko eskubide hori. Ezin dezakezu esan jende gerturik honetarako ez daukagunik.

M: Euskaraz bakarrik? Ni ez nago konforme horrekin. Gaur egun inongo irratik ez du soilik euskaraz ematen. Ehuneko 23a euskalduna bada enpresa pribatuari kalte handia etorriko litzaioke. Ez, hori ezinezkoa da.

A: Ez, baina ni ez natzaizu pribatuiei buruz mintzatzen ari, Estatukoiei buruz egiten dizut ene galdera.

M: Asunto hori estudiatu egin beharko litzateke. Gaur egun hau ez da posible, administralgo medio juridikorik ez baitago eta horretarako lege bat egin behar da baina lehenago estudio bat egin behar da. Nik ez dut topatzen komunitate bat bazterturik dagoenik. Nire ustez agian, frekuentzia moduladan emisio oso bat egin liteke, hiru laurden agian, igual goizetikan bakarrik baina hemen arazoa Estatuan datza. Estatuko irratietan Madrilek agintzen du.

A: Beno, problema juridiko horietan ni ez naiz sartzen, nik sozialistari egin diot galdera, ia beronek hemen gizaeskubideak errespetatzen diren ala ez erantzun diezadan, horretarako ONUk eta UNESCOk atara duten printzipioetan oinarritzen naiz. Hau da: komunitate batek eskubide osoak ditu bere kultura eta hizkuntza desarrolatzeko eta eskubide horik edukitzeko ez da inondik ere ez kontzientzia nazionala eduki behar. Nik ez dizut esan nahi herri honetan, adibidez, telebistak bi kate dituenean, horretariko bata euskaraz soilik ipini behar duenik. Diotzudana zera da, hemen kate gehiago behar dela, hiru edo lau eta horietako bat nahi eta nahiez euskaraz soilik egon behar dela eta edozein Estatuko komunikabideetan berdin topatzen dut. Honelakorik egiten ez den bitartean euskalduna bere herrian bazterturik bizi da, kultura unibertsala adierazteko eta berea ere, beste hizkuntza baten bidez egin behar du. Hau gizaeskubide guztien kontra doa orain.

—Beno, printzipioan, ni guztiz ados nago. Etorkizunean telebista eta irratibat, baita osorik ere, eduki dezake Euskal Herriak. Teknik aldetik arazoak egongo dira, arazoa oso korapilatsua da. Gure aldetik hemen ere, guzti horren alde egingen dugu. Ez pentsa azkenengo hau demagogikoki diodanik. Errealitate bat da baina gaur egun

ezin dezakegu horrelakorik egin. Ezin dugu ezer prometitu. Eusko Kontseilu Nagusiak ez du ahalbide handirik. Herri honetan kultur arloan ia dena egiteko dago eta ez dut nahi nik utopismoetan erortzea.

A: Beno, orduan, utopismoetan ez erortzeagatik, hemen dagoen oraingo egoerak zera erakusten digu, Euskal Herria, hau da, euskara erabiltzen duen Herria, lehen bezala, modu berdinean zapalduarik dagoela esan dezakegu.

M: Nik ez nuke esango euskararen herria lehen bezala zapalduarik dagoenik. Bide berri batzu irekitzen ari dira, askatasun gehiago dago. Ez gaude, noski, benetako demokrazia iraunkor batetan baina bide honetatik abiatzen gara. Nik ez dut uste asuntu horretan oraingoa eta orain bi urteko egoera konpara daitezkeenik.

A: Begira, genozidio de facto batetan pertsonari ez zaio bere burua desarrolatzeko mediorik ematen. Berdin zait niri, basakeriak egiten diren ala ez jakitea. Eta orain genozidio baten ondorioak leku guztietatik ikusten dira eta leku guztietan daudenean, "de facto" genozidio bat dago eta horrela da hau mozteko biderik ipintzen ez den artean behintzat. Ikastola batetan dagoen umea edo eta ikastolan egon barik, gure herriko jende euskaldunari bere hizkuntza propioaz mediorik ematen ez zaion bitartean, bere izaeraren, bere hizkuntzaren bilakaera mozten ari gara eta azken hau ez da ezertaz aldatu... eta aldatu dena oso kontu guttikoa da. Euzkadiko komunikabideetan genozidioa bizi bizirik dago eta horrela segituz herri bat hil egingo duzue. Hil arriskuan dagoenari ez dio balio ez aspirinarik ez txatalik. Beraz, hemen genozidio bat dago, ez bakarrik genozidio baten ondorioak, ondorioak eta kausak ere, genozidioa mozteko benetako soluziobiderik ipini ez direlako. Ez al zaude honekin konforme?

M: Oeno, nik uste dut oso arradikala, berba oso arradikalak erabiltzen dituzuela. Niretzat posibilitateak irekitzen ari dira. Dena den ez gaude egoera ideal batetan ez bitarteko batetan ere. Genozidioa egiten ari dela? Norberaren ideologian datza hori. Genozidioa urte luzez egin da hemen. Eskolako eratzunaren asuntu hori, umeei ematen zitzaiena, baina gaur egun ez dago horrelakorik. Euskal komunikabideetan euskara gero eta indar gehiagoz sartzen ari da, elebitasunerantz eramango gaituen politika bat egin behar da. Euskal Gobernuak hontaz arduratu behar du. Nik ez dut uste beraz genozidiorik dagoenik. Nik uste dut genozidioaren ondoriotan bizi garela baina gauzak aldatuko dira eta hortaz optimista naiz.

A: Uste al duzu Estatua gurekin erantzuela dela? Gurekin erantzunkizun moral bat hartu duela historian zehar?

KONSTITUZIO

PROJEKTUAREN

ANALISYA

Estatuak Lurralde autonomoen zereginari ezartzen dizkien kontrolak beldurgarriak dira. Kontrolak, funtsean hiru motetakoak dira:

1. Huzitegi Konstituzionalak ezarriko duen kontrol konstituzionala eta legearena.
2. Gobernuari dagozkion funtzio delegatuena, eta
3. Kontu Huzitegiaren bidez ezarriko den ekonomiko eta presupostuena.

Hemen guri gehien interesatzen zaiguna bigarrena da, Gobernuak berak zuzenki ezarriko duena.

143garren artikulua arauera, lurralde autonomoko Biltzarreak onhartutako testu guztiak berehala bidaliko dizkio Biltzarrearen Presidenteak Gobernuari. Eta Gobernuak hilabeteko epe baten barruan testu haren zatiren bat edo zatiren batzuek berriz delibera daitezela eskatu ahal izanen du. Hau gerta dadin kasuan testu hura lurraldeko legez onartzeko Biltzarkideen gehiengo osoaren baietza behar da.

Eta guztiau gainera 144. artikulua dienerari erantsi behar zaio. Artikulu honek zera dio: "El Gobierno podrá con la aprobación del Senado, adoptar las medidas necesarias para obligar al Territorio Autónomo al cumplimiento forzoso de dichas obligaciones". (Konstituzioak edo legeak ezarriko dizkien obligazioetatik dihardu).

Neurri multzo guztionez zera dakarkigu gogora, hategia, Udaletxeek hartu erabakiak galazteko Gobernari Zibilek duten eskubidea. (Bapo erabilia den eskubidea, gainera, berau.) Ikus daitekeenez, frankismoaren haririk xuxeneneko erabakia dugu hau.

Gainera erabaki guztiok, esana dugun bezala, botere zati-keta printzipioaren aurrez aurre daude. Eta botere zatiketa-ren printzipioa Dretzoko edozein estaturen oinarria da, izan. Aski da ikustea zer gertatzen den: botere exekutiboak (Gobernuak) Lurralde Autonomoaren botere legislatiboan (Biltzarrean) parte hartzen du. Eta batez ere botere Legislatibo-a, hiruren arteko nagusia dela kontutan hartzen badugu, Gobernuaren gehiegikeria argi eta nabarmen nabarmena gertatzen da.

Aztertzea merezi duen azken puntua Lurralde Autonomoen konpetentzia eta diru autonomiarena dateke.

145garren artikulua arauera Lurralde Autonomoek bera dute finantzar autonomia. Baina egia esan, artikulu hau oin-harri deklarapen bat baino ez da. Praktikan ez du ezer ematen. Ikus dezagun:

Lurralde Autonomoek dirua biltzeko dituzten baliabide nagusien artean hauek daude:

- a) Estatuak guztiz edo zati batetan utzitako zergak.
- b) Lurralde Autonomoak laguntzeko jarritako funts bate-tiko transferentziak eta Estatuaren Presupostuetatik emanda-ko beste zenbait diru.

Baina, Lurralde Autonomoek dagozkien finantzar zeregin-ak legez erregulatuko dira (Madrilen noski), Estatuaren Ait-zinkontu Jeneralek emango diete gastu arruntetarako dirua, eta Lurralde Autonomoek diru haren bidez lagundu behar dute Estatuaren irabazi orokorretan (Madrilen onhartuak, noski) eta azkenik Gorteek (Madrilek, noski) erabakiko dute Lurralde Autonomo bakoitzari zenbat eman behar zaion. Eta guk zerau galdetzen dugu: non ote dabil Lurralde Autono-mentzako finantzar autonomia farnatu hori?

Eta azkenik, saltsari falta zaion biperra 148. artikulua damaio. Honela dio: "Las formas de colaboración financiera entre dos o más territorios autónomos y entre estos y el Estado, serán competencia de éste". (Estatuarena, jakina.)

9. KONSTITUZIO HAUZITEGIA

Konstituzio Huzitegiaren zeregina konstituzioa defen-datzea da.

Espainiako Konstituzioarentzat aurrakusi den defentsa sistema Konstituzioaren Dretxoan "Austriar Sistema" derit-zona da. Nolanahi ere, Italian darabilten sistemaren imitazio ia osoa dakusagu Espainiarako proiektu honetan.

10. KONSTITUZIOAREN ERREFORMA

Lan osoan zehar behin eta berriro esan dugunez puntu hau oso garrantzitsua da.

Konstituzioaren Dretxoan, Konstituzioak, bi sailetan banatu ohi dira, erreformatzeko errazak ala gaitzak diren begiratuz. Eta beraz konstituzio guztiak Errazak ala Gaitzak dira.

Gaitzak aldaketak egiteko baldintza gehigarriak eskatzen dituztenak dira.

Eta Errazak, aldaketak egiteko beste edozein lege onhar-tzeko baino eskakizun gehiago ez dituztenak.

Sailkapenon arauera Espainiakoaren proiektua oso alda-gaitza dela esan daiteke, ikusiko dugun bezala artikulu bat edo gehiago aldatzeko eskatzen dituen baldintza gehigarriak oso inportanteak dira eta.

Teknikaren aldetik zer hau huts izugarri bat iruditzen zai-gu eta benetako desgustuak eman ditzakeela uste dugu. Ez da ahaztu behar Estatu Espainoleko politikaren bilakapena egin berria dela oso, eta esperientzia 'demokratikoa' oso laburra dela. Oraindik hainbat gauzaz ez dago kontzientzurik (Estatu-aren batasunaz, autodeterminaziorako eskubideaz eta Monarkia ala Errepublikaz, kasurako). Guztionegatik, frog-a gisa edo ba dirudi zuzenagoa zitekeela gauzak eta ideiak xedatu arte aldaketatarako sistema zauliengo bat eratzea, beharrezko aldaketak errazago egiteko.

Baina ez dira gauzak horrela egin. Eta hautatu den siste-mak ederki lotzen ditu aldaketa guztiak, urte batzutan bede-ren. Hau guretzako oinharri oinharrikoa da, eta proiektua errefusatzerik garamatzatenetako arrazoi bat ere bai.

Ikus ditzagun, ba, zeintzu diren erreformatarako bete behar diren baldintzak:

1. Erreforma Gobernuak edo Kongresuko Diputatuek eska dezakete bakarrik. Senatuak eta Lurralde Autonomoko Biltzarreak Gobernuari Lege Proiektu bat edo kongresuari, azter dezan, Lege Proposamendu bat bidali ahal izango dio. Eta Kongresura hura defendatzera hiru laguneko batzorde bat joan ahal izanen da.

2. Erreforma bat 500.000 hauteslek sinatutako lege pro-posamendu bat bidaliz ere eska daiteke. (Baina sistema honek ba ditu bere mugapenak.)

3. Kongresura bidalitako proiektuak bi Ganbaretako bostetik hiruk onhartu behar dute. Bi Ganbarak akordio batetara helduko ez balira, onhartzeko moduko testu bat prestatuko duen Batzorde bat egingen da. Batzorde hori bi Ganbaretako jendez osatuko da.

4. Baina honela ere akordiorik lortuko ez balitz, aski iza-nen litzateke kongresuak onhartzea, hirutik bik baietza ema-nez... aldeztetik Senatuak gehiengo osoz onhartu badu.

5. Erreforma bi Ganbarek onhartu ondoren erreferendu-mez botatuko da.

6. Gerrate edo 'estado de excepción' batetan konstitu-zioari buruzko aldaketa guztiak lekuz kanpoan daude.

Baina ez da guztia honetaz amaitzen. Bigarren arau iraunkorrek zera dio: "Si en el plazo de cinco años, a partir de la entrada en vigor de esta Constitución, se propusiere su reforma, ésta sólo procederá si ambas cámaras aprueban el principio de la misma por una mayoría de 2/3. En este caso se procederá a la disolución de las Cortes Generales. Las nuevas Cámaras elegidas deberán ratificar la disolución y proceder al estudio de un nuevo texto constitucional que deberá ser aprobado por mayoría absoluta de ambas cámaras, y sometido a referendium".



ZURIAK BELTZAK IKUSTEN

Bai, beltzak ikusi dituzte Zairen bizi diren zuriak. Hildakoen eta desagertuen artean 250 bat izan dira. Horrialde pila ederra bete da egunkarietan Kolweziko hilketa hau dela eta. Zenbait Estatu ere mobilizatu izan da, batipat Frantzia eta Belgika.

Komentario guztiak hango zurien zoriaz eta kanpoko indarren partehartzeaz ihardun dira. Irakurlea nekez enterazitekeen zergatik altxatu diren Kolwezin Mobuturen aurka. Burruka hau ez da lehendabizikoa. Aspalditik dator, deskoloniakuntzaren ondorio da. Katangak ez al dio inori oroitzapenik ekartzen? Eta Tshombe famatuak? Harritzekoa da zein kasu guti egin zaion historia hurbil honi maiatzaren bigarren eta hirugarren astetan gertatu zena esplikatu ahal izateko.

Zaire, izan ere, deskoloniakuntzaren izena da. Zaire hau Kongo belgikarra izana da, orain ere zenbait lekutan hiriburutik ezaguna: Kongo-Kintsasa. Zaire hontan, dirudienek, bi leinu edo tribu dira nagusi: Lunda eta Luba. Bi eskualde ongi definituak, beraz, eta bi kultura, bi mundu. Lubatarra da Mobutu. Mobutu eta bere inguru politikoa, gainerakoak zapalduz. Gogorki atakatu ditu beti Mobutuk Lunda tribukoak. Behin eta berriz errebolatu dira hauk. Maiatzean azkeneko.


Zalantzarik gabe, Zairen gertatu dena barnepolitikako arazoa da. Frantziak eta besteek parte hartu badute, zuriak salbatzearen izan da. Hortarako bakarrik ote? Geroxeago aztertuko dugu hori. Galde dezagun orain zergatik izan diren zurien aurkako atake hauk. Honen esplikaziorik ere ez da agertu.

ZURIEN AURKA

Zergatik zurien aurka?

Ez dut uste eraso honek ulertezinako sekreturik duenik. Zairen dauden zuriak sinbolo eta errealtate dira. Errebolta izan den lekune hortan, Kolwezin alegia, hiru bat

24. hor.



Mobutu: Zuriak beltzak ikusten.



250 hildakoen eta desagertuen artean.

mila zuri dago: 1.750 belgikar, 400 frantses, 200 greziar, 100 portugaldar, 50 bat italiāno eta 14 Ipar Ameriketako. Patroi, industriari, teknikari eta langile espezializatu dira. Izan ere, Shaba alderdi hau oso aberatsa da, mehatzetan oparōa, kobrea bereziki. Harritzekoa al da eskualde zapaldu eta menperatu hau errebolatzea, bertako aberastasunak eta ondasunak hustutzen ari direnen aurka? Eta ez hori bakarrik. Eskuāde hau, kolonikuntzaren garaian ere, zigortua izana da, zuriak zigortua, kolonoek. Eta ezin da beste gauza bat ere ahaztu: zuriak dira Mobutu bere etsaiaren eusleak. Horregatik eraso eta hil dituzte batez ere frantsesak, frantses abioiak izan bait ziren ihazko inbasioan ere Marruekoako soldaduak eraman zituztenak. Eta azkenik, esango nuke, zuriak atakatuz, beren burruka ezagutarazi egin ohi zuten. Lortu dute, noski.

Hauk izan litezke zurien aurka joateko errebolatuek izan dituzten arrazoiak. Besterik ere izango da, beharbada.



ZURIEN KONTRAEKINTZA

Zaireko ekinaldi hortan, ezkutuan ala agirian, Estatu askok partehartu du. Sobiet Batasuna, Cuba, Angola, Argelia, Libia salatu ditu Mobutuk, prestakuntzan gutienik partehartu dutelako.

Agirian, oso agirian, partehartu dutenak Frantzia eta Belgika izan dira. Bigarren maila batetan Ingalterra eta Estatu Batuak, laguntza zenbaiten bidez. Frantziak mila bat legionario bidali zituen, eta Belgikak 1.750 militar. Kolwezin frantsesak sartu ziren lehenak. Denen artean, laster askatu zituzten arriskutan zeuden zuriak. Hilik ere asko aurkitu zuten, 200 bat eta errebolatuen eskutan egon zitezkeen beste 60ren bat. Masakre baten aurrean aurkitu dira. Burruka egin beharra izan dute, gainera.

Militar alderdi hau aparte utzirik, interbentzio honek arrotu ditu bazterrak, bai Frantzian eta bai Belgikan. Hasteko, koordinaziorik gabe abiatu ziren frantsesak eta belgikarrak. Belgikari deus esan gabe bidali zituen bereak Frantziak. Baina hau da guttiēna: zer dela eta, edo zertarako sartu ziren Zaireko barne politikan? Badirudi Frantzia eta Belgika ez zirela intentzio berberaz aritu. Belgikako Defentsako Ministroak berak garbi esan du: "gure ikuspegiak desberdinak ziren". Belgikarren ekintza, "errefuxiatuak ateratzea" zen, eta horregatik joan ziren zurien bizilekuetako plano eta guzti eta 72 ordutarako bakarrik. Frantsesak, nonbait, hori baino asmo luzeagoa zuten, "ordena jartzea", Mobutu laguntzea hategia. Garrazki salatu du hori Frantziako ezkerak eta Miterrandek bereziki. Frantzia, garbi garbian, Mobuturen erregimena laguntzera joan da.

Giscardek Mobutu laguntzeko duen arrazoiaren artean ez da tikiēna, hori eginaz, belgikarrak baztertzea eta Zaireko kooperazioan bera nagusi gelditzea. Esan baitugu mehatzetan, lehen ekaitan, oso aberatsa dela Zaire. Aspalditik datorren hau da hau. Duela urte bete esan zuen Belgikako kanpo ministroak Frantzia Zairen muturra sartu nahian zebilela. Ba dirudi nahi duena lortuz doala Giscard. Mobutu, izan ere, Brusellasekin haserre dago, eta Giscardkin oso ezti. Segurua da Frantzia geroz eta gehiago sartuko dela Zairen, Mobutuk irauten badu, behintzat.

Oraindik ere egunkariek arazo honetaz dihardute. Gero eta gutiago agertuz doa, holāxe itzali arte. Baina zerbait konpondu al da? Deus gertatu ez balitz bezala jarraituko du munduak. Eta berriz ere, arrazoiaren indarra garaitu beharrean, indarraren arrazoiā gailenduko da.

joanes lekerika

BENJAMIN DISRAELI

Nik, belardian oraindik etzanik, itzalari galdera bat egiten diot.

—Zer, ez didazu ezer gehiagorik kondatu behar?

—Beno, Benjaminek maiz, Retz kardinalarean esaldi bat errepikatzen zuen: "Ez dago ezer munduan bere mementu dezisiborik ez duenik. Arrakasta, mementu dezisibo hori noiz den aukeratzean datza".

Ni eseri egin naiz.

—Eta heldu al zitzaion Benjamini mementu dezisibo hori?

—Bai. Parlamentua Sir Robert Peelen kontrolatzen zuen, eta Disraeli, paregabeko diskurtsuekin, haren influentzia desegiten ahalegindu zen. Opor parlamentarietarik atsedena bat eskaini zuten. Epe hau, Benjaminek familiarekin eman zuen, kanpoan, Londreseko zaratetatik urrun. Peelek ere bere atsedena lortu zuen Drayton gazteluan. Uda hartan euri asko egin zuen eta Irlandako lursagarren uzta eta Ingalaterrako gariarena, galdu egin ziren. Beraz, gosea zetorren.

—Eta zer gertatu zen?

—Sir Robert Peel-en gobernu egoera nazional larri baten aurrean aurkitu zen eta problemak konpontzeko bere ezintasuna nabari zegoen. Azkenik, erreginari dimisioa aurkeztu zioten eta honek lord Russell-i deitu zion, baina honek ez zuen onhartu gobernu berri baten buru izatea. Orduan, erreginak berriro gomendio hori Peel-i eman zion eta honek onhartu egin zuen. Baina Peel-en gobernu berria, kontradikzioz beterik, noraezean ari zen. Disraelik Parlamentuan gogor atakatu zuen gobernu hau eta botazio batetan gobernu derrotatua agertu zen. Peel-ek dimisioa egin zuen eta erreginak lord Russell liberalari enkargatu zion gobernu berria eratzea. Toriek, eta Disraeli barne, oposizioa pasatu ziren. Benjaminek, nobela berri

bat idatzi zuen: "Tankredo". Bitartean, zaldiz zihoala, animaliak bere gainetik sir Peel bota egin zuen, eta hil. Egun batzu geroago, lord Russellen gobernuak dimititu egin zuen. Dagoeneko, Disraeli Londreseko Parlamentuan diputaturik dirdiratsuen zen eta bere hitzaldian arreta handiz entzuten ziren. Gauza interesgarriak esaten zekien, eta dotore, oso dotore esaten zituen. Gobernu berria lord Derbyk zuzendu zuen eta Finantzen Ministraritza Disraeliri eman zioten. Beraz, ba dugu Disraeli, lehen aldiz ministrari.

—Ongi. Baina ez al zaizu ironia handi bat iruditzen zorrak janda zegoen bat Finantza Ministrari izatea?



Beno, hori ere orain gertatzen zereda. Disraelik, noski, bere ezagutegokiago zitaion Ministraritza behar zuen, eta inolaz ere ez zentza Ministraritza. Baina gaur adibidez, zer dela eta Bandres Transportes y Comunicaciones Kontseilari? Ez al litzateke egokiago Bandres, Justizia Kontseilari izatea? Interior, Barne Arazoetako Kont-

seilari? Beraz, ez da harriztekoa horrelako kriterioekin eraturako gobernu berehala jausi bazen. Disraelik jadanik 55 urte zituen eta gaztetan amesten zuen karrera dirdiratsu hura apurturik zegoen. Benjamin gizon ixila bihurtu zen. 1859. urtean bere arreba Sarah, betiko lagun leiala, hiltzen da. Inoiz baino gehiago, bere emazte Mary-Annegan aurkitzen du kontsolamendua eta babesa. Orain ere emakumezkoak zitaizkion lagunik leialenak: lady Dorothy, lady Londonderry... Oxfordpeko Unibertsitateak "doctor honoris causa" izendatzen du... 61 ur-

kidetsuago bat zuten. Behin galdetu zioten ea nola lortu zuen erreginarengandik hain arrakasta handia, eta Disraeliren erantzuna oso sinplea izan zen: "Ez diot inoiz ezetz esaten, ez diot inoiz kontraesaten eta maiz ahantzi egiten dut". Disraelik erreginari bere nobelak bidaltzen zizkion, eta erreginak hari loreak. Baina Disraeli, bere kargutik, ez zen sentimendu eta arazo horietara mugatu. Bere lan publikoa ongi egiten ahalegindu zen gartsuki. Britainia Handia, Inperio bilakatu zuen, munduko lehen potentzia. Dena Britainia Handian goraz zihon.

—Beraz, esan dezakegu Benjaminek lortu zuela bere helburua.

—Bai. Beharbada uste zuen baino beranduago. Baina oraindik ba zuen kemenik, adimen argirik. Adibide bat ipiniko dizut. Behin, Parlamentuan Elizaren egoera aztertzen ari zirenean, norbaitek esan zuen gizonak tximinoetatik datozela, horrela Elizen teoriei kontra egin nahi zuelarik. Benjamin Disraeli zutitu egin zen, sinesgabea bera, eta honela erantzun zion: "Gizona, tximioa ala aingerua ote da? Nik, Mylord, aingerua nahiago"... Beno, eta ba al dakizu zer? Ba, zurekin dudan solasaldi hau luzeegia dela...

—Ez, jarrai ezazu aurrera, ANAI-TASUNAKO irakurleei kondatu nahi diet eta.

Itzala barrezka hasi da.

—Mesedez, ez ezazu horrelakorik egin. Aspertu egingo dituzu. Egia esan, ni ere aspertzen hasi naiz. Ez pentsa ez zaidala aspaldiko konduak gogoratzea atsegin, ez. Baina gauzak neurritik kanpora egiten direnean, aspergarri bihurtzen dira. Horregatik, bukatzera noa. Ikusi duzu, jadanik, Benjamin Disraelik bere helburua lortu zuela. Britainia Handiko gizon hospetsuena bihurturik dago, eta hori Estatu horrek bere hospe handiena lortu zuen epean: Victoria erreginarenean. Jatorriz judua izan zen hark, bizitzeko bere familiak aukeratu zuen nazioa leialki zerbitzatu zuen. Irakasbide ederra Euskal Herriarentzat, etorkinen integrazioa eztabaidatzen ari zareten mementut honetan. Hor duzu etorkin bat, inmigrante familiako gizon bat, bizi den nazioa maitatzen eta zerbitzaten. Benjamin Disraeliren bizitza kondatu badizut, ez da izan haren ideia kontserbakorrei propaganda egiteagatik. Baizik eta bi puntu nagusi azpimarratzeagatik: bat, inork helburu bat markatzen badu eta sutzuki hari atxikitzen bazaio, lor dezakeela, eta bi, etorkin batek, leialki jokatzeko badu, lor dezakeela integratu den nazio berriaren posturik gorengoena. Disraeli dugu, beraz, euskaldun gazteriantzat eredu, etorkizun zoriontsu bat lortzeko bidean, Euskal Herri humanoagoa, libreagoa eta zuzenagoa eskuratzeko bide luzean.

Xabier Gereño

27. hor.

te. Urteak aurrera doaz eta oraindik ez da Lehen Ministrari. Bere interbentzioak Londreseko Parlamentuan denetarik ederrenak dira, txalotuenak, baina bere karrera politikoan ez du aurrera egiten. Baina Britainia Handiaren egoera ekonomikoa gaizkiagotu egin zen. Lord Derby, egoera horri aurea eman ezinik, dimittitu beharrean aurkitu zen. Orduan erreginak Parlamentuko gizonik dirdiratsuenari dei ziezaiotela agindu zuen: Benjamin Disraeli-ri. Eta hor dugu gure burrukalari gihartsua Britainia Handiko Lehen Ministrari.

—Baina erreginak ez zuen Benjamin-ekiko eritzi onik.

—Ez, mesfidantzaz ikusia zen haren aldetik. Baina hori, pertsonalki ezagutu ez zuen garaian gertatu zen. Gero, Benjamin Lehen Ministrari aukeratu ondoren, harreman pertsonalak hartu zituztenean, eritzi aldatu egin zen erregina. Aurretiaz ere esan nizun emakumezkoekin arrakasta handia zuela, eta Victoria erregin handia ez zen horretan salbuespen bat izan. Disraeliren itxura estrainioa, bere hitz egiteko modu erdi literatu erdi politikoa, bere pertsonalitate bortitzak, zerbait zuen, xarma bat, dei berezi bat. Victoria erregina alargun zegoen. Benjaminek ba zekien andreak nola tratatu, horretan esperientzia luzea zuelako. Bestalde bere kultura handia, bere hitz egiterakoan zuen dotoretasuna, paregabeak ziren. Horrela, erreginarenean eta bere lehen ministrariaren arteko harremanek, ofizial baino beste kutsu adis-



ARGENTINA TELEBISTAKO PANPINA

1978. urteko mundu-kanpionatuko finalen lehen fasea bukatu delarik, askoren ñihotz taupadak beren erritmo arruntera itzuli dira. Hainbat esperantza deuseztuz, batzuk beren etxeetarako bidea hartu dute. Eta onenak ez badira ere, txarrenak ez diren talde batzuk aurrerantz segitzen dute. Europako bost talde eta Hego Amerikako hiru: Alemania Federala, Austria, Holanda, Italia, Polonia, Argentina, Brasil eta Perú. Nor izanen ote da garaile?

KRIKA ESPORTIBOAREN KRIKA

Egunkariak —eta informabide guztiak— espekulazioz beterik egon dira. Egun batetatik bestetara zurutik beltzera pasatu dira: Superbaloraziotik mespreziora edo alderantziz. Brasilen kasua dugu adibidez. Hasi aurretik, kazetarien eritziz, jan egingen zituen guztiak. Gero ekiporik motelena bezala agertu digute; ordea, ez du partidurik galdu eta aurrera doa. Noski puxikak gehiegi puzten direnean, azkenean apurtu egin behar...

Tunisiaren kasua guztiz alderantzizkoa izan da, ostera. Jokatzen ez zekitela zioten, baina alemanek ezin ahal izan zuten enpatatu baino gehiagorik; eta polakoek ozta-ozta eta merezimendu handirik gabe garaitu zuten. Eta zer esan, Peru eta Austriaren taldeei buruz? Kasu hau guztiok ikusiz, aurretik eginitako kalkuluak espekulazio hutsak zirela pentsatu behar. Kritikariak kritikatu beharrean gara beraz.

Puntu negatiboen artean, jokalarien mitifikazioari buruzkoa ere aipatu behar dugu. Dirudenez, kazetariak futbolari-mitoak behar dituzte artikuluak idazteko. Eta hor ari dira itsuki, ea horrelakoren bat aurkitzen duten. Krankl dela, Cubillas dela, Luque dela, Rossi dela,... Ahantziegia dute, futbola —ezer bada— taldean egiteko kirola dela. Eta jokalaria oso onak eta ez hain onak badaude ere, faktore asko eduki behar direla kontutan: aurkako taldearen kalitatea, erabilitako taktika, eta abar. Adibide gisa, hor dugu Platini-ren kasua. Oso ona izan arren, jokatu dueneko grupoa dela eta, etxerako bidea hartu behar izan du.

Kritikak zenbait puntu positibo izan ditu. Hara bat. Horrelako okasioetan, aldirik kontratatatu egiten dituzte zenbait

futbolari-ohi edo gertalari esperimenduak kritika teknikoak egiteko. Eguneko kasuan, adibidez, Boronat eta Hainbat zondo aritu dira. Eta hori aukera ona izan da, kritika serioak irakurtzeko, kazetari askoren sentsazionalismotik urrutira Zorionak beraz, alde horretatik. Hain ere, Euskal Herriko egunkarietan ez da posible horretarako euskaraz idatzirik duenik aurkitzea? Bilatuz eta pagatu gabe dudarik ez dut egiten, hainbeste daude ordea. Ordea, ez dirudi interes handiegirik dugunik; kazetaritza euskaldun hori bultzatzeko.

ANEKDOTA PILOA

Anekdoten eta gertakari bitxiaren zerrenda, oso luzea da. Liburu bat idazteko bezainbestekoa. Laburki, bederen, hona horrelako batzuek irabazten ez zuelako, gizon batek bere burua hil zuen barbiturikoak irentsiz. Mexikar futbolariak oso kontuz ibili beharko dute etxeratik itzultzean; jadanik batzuren etxeratik harriak erasoak izan dira, eta hotelean Molotov koktelak ere jaurtiki die. Eskoziar ziarrek ere beren numeroa muntatu dute, lehenik, whisky-a gora eta behera, modu kolektiboak; ondoren, Johnstons famatuak dopaturik jokatu zuela frogatu da; bukatzeko, zailena omen zena erraz egin dute, Holandari irabaztea halere, edo ez dute arazoa seriozki hartu edo etxeratu turismoa egitera joan dira.

Telebista dela eta, ba da zer kritikatu. Futbola maite ez dutenek behintzat, poliki haserreturik daude. Ez da nonbait harriztekoa, Britainia Handiko deputatu laborista batek egin duen kexua. Egia esan, negargarria bide da, futbola derri-gorrez ikusi beharra. Futbolzaleok nahiko pozik gaude, baina ez legoke guzki programazioa hankaz gora ez botatzeko.

partidu guttiago ematea edo partiduak
 bertuz ematea, betiko programazio
 arruntari traba guttiago eginéz.
 Errespetu-kontua dela uste dut.

HIRUGARREN MUNDUKOEN DIS- KRIMINAZIOA

Futbolean ongi ez dakitelako atxakiaz,
 ez zaie eskubiderik onhartu nahi, finale-
 an partaide gehiago izan daitezten.
 Ordea, Perú ederki frogatu du zerbait
 dela. Eta Tunisiak ere, eliminatua
 den arren, potentzialki duen indarra
 erakutsi du. Futbola mendebaldeko zibi-
 lizazioaren semea denez, arrazismo izku-
 rtsu bat ageri da FIFAREN antolakundean.
 Batetik ez bada ere, afrikarrak eta asia-
 rrik beheragoko arrazak direla edo pent-
 zatzen da eta ez zaie leku gehiago utzi
 behi. Gauza folkloriko bezala hartzen
 dira. Dena den, herri hauk esnatzen ari
 dira, eta egunen batetan, atletismoan
 gertatzen ari den bezala, besteen maila-
 koak izan daitezkeela frogatuko dute.
 Izan ere, futbolak ezer onik eta interes-
 garririk badu, erresultatuen intzertidun-
 brea da: Edonork irabaz lekiok edonori.
 Horixe da, futbolak publikoa erakartze-
 ko duen indarraren funtsa. Horrexegatik
 da zirraragarri.

VIDELAREN ETA OPOSIZIOAREN ARTEKO PARTIDUA

Estadioetako zelaietan jokatzeko ari diren
 partiduez gain, ba da Argentinan beste-
 lako mach interesgarririk: Politika eta
 propagandaren arloan, gobernu faxista-
 ren eta oposizioaren artean jokatzeko ari
 dena halegia.

Munduko herri guztietako kazetari,
 informatzaile eta kirolzale guztien begiak
 Argentinari begira daude. Zer abagadu-
 ne hoberik propaganda egiteko! Videla
 jeneralak eta bere inguruko kideek —pu-
 blizitate entresa famatu baten lagun-
 tzarekin— aurpegia garbitu nahi dute
 munduaren aurrean: Jaunok —diosku-
 te— Argentinan ez da bakerik baino,
 hemen ez da ezer gertatzen. Eta dirudie-
 nez, beren helburua lortzen ari dira
 oraingoz. Bitartean montoneroek ezin
 dute Argentinaren beste aurpegia eraku-
 tsi, dena baitago militarri kontrolaturik.

Lotsagarriago dena ordea, zera da,
 kontrolpean beste herrietako kazetariak
 ere ba daudela. Oker handirik gabe, neu-
 rri handi batetan Videla-ren kolabora-
 tzaileak gertatzen ari direla esan daiteke.
 Ez dute ahalegin handirik egin behintzat,
 hango benetako aurpegi erreala agertze-
 ko. Komentarioak ikustea baino ez
 dago: Dena oso ongi, antolakunde per-
 fektua,... Noski! Beti bezala, politika eta
 kirola ez direla nahastu behar esanen
 dizute, eta kito.

1982. URTEKO MUNDIALETAN, EUSKAL HERRIAK ERE PARTE HARTUKO OTE?

Eta politika aipatu dugunez, hor dago
 ESB eta ANV partiduek —hauek politiko
 adjetiboa daramate— egin duten eskaria.
 Euskal Herriak ez ote du eskubiderik
 nazio gisa horrelako mundu-
 kanpionatuetan parte hartzeko? Estatu-
 rik ez duela? Tira! Oraingoz ez; baina
 kasu berean aurkitzen dira beste batzu
 ere. Nazioa ez dela? Ea zer esaten duten
 FIFAKOAK! Kalitate konturik ez dago.
 Bestalde, hurrengo kanpionatua hain
 autonomista omen den Espainian hos-
 patzeko da. Seguru egon, ordea, bati bai-
 no gehiagori eskaria gustatu ez zaiola.
 Eta behintzat, besterik ez bada ere, eze-
 tza eman diezagutela.

J. R. Bilbao



Italia. Orain arte sendoen agertu den taldea.

EMAKUMEA ETA KONSTITUZIOA

Orain dela urtebete, hauteskunde aurreko kanpainen geunden. Mitinetan, kandidatuek beren eritzi eta asmoak ematen zizkiguten, gure botuen eske. Desberdintasunak ba ziren haien hitzen artean, batzurenak kontserbazaleagoak ziren, besteenak aurrerakoiagoak... baina guztiak emakumearen eskubideen alde zeuden, esaten zutenez. Geroztik, kanpainen esan zigutenaren alde handi bat ahaztu egin dute dirudienez. Eta ahaztuenetakoak, berriro ere, emakumeok izan gara. Konstituzio proiektu hau ikusi ondoren, dudarik ez dugu. Eskuindarrak gure aurka daude eta ezkertiarak ez daude gure alde, beraz kontzientzuz zer atera? Orain aztertuko duguna.



Emakumearen eskubideak baztertzen dituen Konstituzioaren kontra.

KONSTITUZIOAK ZER DIO?

Proiektu honek ez digu ezer berri ematen, nazio, klase eta emakume bezala ditugun arazoak gainditzeko. Gai batzutan, hitz politikak esaten dizkigu jeneralki, baina gero hitz horien balioa desegina geratzen zaigu konkretukiago ukitzen duenean puntua.

Lehenengo tituluan, oinharriak finkatzean, garbi adierazten digu "Espainia bat dela", "gaztelera hizkuntza ofiziala" eta alderdi eta sindikatuek askatasun osoa dutela "konstituzioa eta legeak errespetatzen badituzte". "Askatasuna" eta "Berdintasuna" omen dira konstituzio honen oinharri nagusiak. Eta hau horrela ez dela pentsatzera ausartzen denarentzat, hor daude "Indar harmatuak", Espainiaren batasuna eta konstituzioa defendatzeko prest, 10. artikulua dionez, norbaitek ilusioaren bat gorde balu edo, hemen lehenengo titulua.

Bigarren titulua hasi ginen ba aztertzen, "funtsezko betebeharrak eta eskubideen" artean guretzat zer edo zer aurkitzeko asmoz, eta 14. artikulua topatu genuen: "Todos los españoles son iguales ante la ley sin discriminaciones por razón de sexo, de raza, de nacimiento, de religión, de opinión o de cualesquiera otras condiciones personales o sociales". Legearen aurrean berdina gara... baina legea, bera, diskriminatzailea baldin bada, ez dugu gauza handirik aurreratu.

15. artikuluan: "Todos tienen derecho a la vida y a la integridad física". Zer ondorio dakartza esaldi honek? Herio zigorra kenduko denik ez du esaten, baina bidea zabalik uzten dute gero haur erabaki ahal izateko. Baina, "todos" honen barruan, umekiak ere sartzen badituzte, abortua konstituzio-aurkakotzat jo daiteke...

16. artikuluan, erlijio askatasunaz mintzatzen dira, baina eliza katolikoari pribilegioak kendu gabe, noski.



Emakumeen eskubideak konstituzioan.

Bestalde, erlijio eta ideologi askatasun hauen gainetik, "ordenu publikoa" eta legeak ezartzen dituzte beti.

17. artikulua zera dio: "Nadie podrá ser privado de su libertad, más que en los casos previstos por la ley y en la forma que ésta disponga". Garantia ederra ematen digutena.

18. artikulua: "Se garantiza el honor y la intimidad personal y familiar". Familiaren ohorea gordetzeko garanta honek zera ekar dezake: konstituzioaren babespean, familia honetan zanpaturik bizi direnek, hots, emakumea eta haurrak, sufritzen dituzten hainbat injustizia, ohore honen izenean estaltzea. Eta praktikan, gaur egun, horrela gertatzen da. Ezkertiar esaten diren askok ere, familia barruan gertatzen dena "bizitza pribatua" delakoan ez dute maila honetan, borrokan parte hartu nahi. Jokabide hau guztiz atzerakoia dirudigu, zanpaketa egoera bat iraunkortzea delako. Baina jarrai gaitezen azterketa honetan...

27. artikulua: "A partir de la edad núbil, el hombre y la mujer tienen el derecho a contraer matrimonio y a crear y mantener, en igualdad de derechos, relaciones estables de familia". Familia bat osatzeko eskubidea, bai... baina familia bat ez osatzekoa, EZ. Konstituzioak beste harremanik ez du onhartzen pertsonen artean. Eta "harreman finko" hauk mozteko, ez du dibortzio hitza aipatzen, konkrezioak lege zibiletan uzten dituelarik.

28. artikuluan, hezkuntza dela eta, ez du esaten maila honetan sexu diskriminaziorik izanen ez denik. "La educa-



ción tendrá por objeto el pleno desarrollo de la personalidad humana..." Sexu bereiztasuna aipatzen ez dutenean, ez dagoela pentsatzen dutelako izanen da? edo dagoena oso ondo dagoela uste dute behar bada?

Jabego pribatua ezagutu eta onhartu ondoren, 30. artikuluan, guztiok lan egiteko dugun eskubidea eta obligazioa azaltzen digute: "...En ningún caso podrá hacerse discriminación por razón de sexo...". Baina gero, 32.ean hau esaten digute: "El empresario tiene derecho a establecer las condiciones de empleo de acuerdo con criterios de productividad...". Honekin, orain arteko hitz politikoriek ez dute gehiago ezer balio. Lan egiteko eskubidea dugu, baina nork emanen digu lana? Alokairu on bat irabazteko eskubidea dugu, baina nork ordainduko digu? Sexu diskriminaziorik ez omen dute eginen, baina enpresariak produktibitate arrazoiak erabiliko ditu, eta produktibitate pribatua, noski! Beraz, emakumeak kanpora. Umeen ardura geuk dugu, geuk ekarri behar ditugu mundura, geuk hazi, geuk zaindu... lantegi batetan ez gara produktiboak.

34. artikulua: "Los poderes públicos aseguran la protección económica jurídica y social de la familia, en particular,..." Berriro ere, familia bat osatzeak dakartzen abantailak. Eta abantail hauetan pentsatzen ari garela, bostgarren kapitulua aurkitzen dugu. Bere izena, "Suspensión de los derechos fundamentales". 47. artikulua dionez eta Estatuaren segurtasuna, moralaren babes, eta hiritarren askatasun eta eskubideen defentsan, lehengo artikuluetan ematen zizkiguten eskubideak, nahi dutenean ken diezazkigukete.

Eta horrela bukatzen da bigarren titulu hau. Konstituzio hau guztiz matxista, klasista eta zentralista dela garbi dago. Eta gure eskubideen defentsa inork ez duela seriozki hartu ere garbi dago.

— Funtsezko eskubideen artean, ez da azaltzen norberak bere gorputza kontrolatzeko duen eskubidea. Eta zentzu honetan, emakumeok geure gorputzaren jabe garela eta geuk erabaki behar dugula umeak noiz eta nola izan eta horretarako antisorgailuak erabili ala ez, eta abortura jo ala umea ekarri. Medikuz zerbitzuen artean posibilitate hauk ere aurkitu behar ditugu, askatasunez, erabakitzeke gure gorputzaren gain.

— Konstituzioa, patriarkal familiaren defentsa oso bat da. Familia honetan emakumeok betetzen dugun papera mantendu egiten du. Umeen ardura kolektiboa izan beharko litzateke, behar guztien, aldetik, eta ez amarena bakarrik. Orain etxean egiten diren lan gehienak kolektibizatzea ere beharrezkoa dugu, eta geratzen direnak etxe-koen artean banatu. Hauk garantizatu ondoren, esan daiteke ez dela lanean sexu diskriminaziorik izanen, hezkuntzan ere ez baldin badago... Baina hau ez badugu betetzen, hots, patriarkal familia mantentzen bada, besteak hitz hutsak dira. Eta diskriminazioa hor edukiko dugu.

— Guztiok lan bat edukitzea eta alokairu on bat jasotzea ezina da interes pribatuak atakutzen ez badira. Konstituzioak alderantziz, interes hauei laguntza osoa ematen die, Indar Harmatuak eta antzekoak beraien zerbitzuan jarritz.

Praktikoki jokatzu, eta konstituzioa funtsean aldatzea ezina denez, ea zabalik uzten dituen bide hestuek legeen bidez aprobetxatzen ditugun, ahal den neurrian. Horretarako, gai garrantzitsuenak, hots, dibortzioa, antisorgailuak, abortua, etab. ondo aztertu eta kanpaina sakon eta gogor bat egin beharrean aurkitzen gara.

Eta konstituzio honi, ezetz esanien nioke nik. Merezi, boikota gehiago merezi du, baina gaur egun ez zen ondo bereiztuko boikota edo axolagabetasuna izan den jokabidea...

1. **Guero Davitec eman cion bere semeari urte eta cilhar Jaunaren temploan beharco ciren bea sacratuentzat**, Etcheberry (1), 117 orr.

2. **Yrezat naztoana besteri ez opaesi** 'lo que para no quieres no ofrezcas a otro', RS 1596, n.º 470.

3. **Cerbitzaric batec-ere ecin bi nabusi cerbitza ditzaque**, Leizarraga, S. Luc. XVI, 13.

4. **Azaga onic estau mandazaic** 'postrimeria buena no la tiene mulatero', RS 1596, n.º 302.

5. **Esacussan beguic nigar esteguic** 'l'oeil qui ne te void pas, ne te pleurera pas', Oihenart, 153.

6. **Harri erabilic estu bilzen oroldiric** 'une pierre souvent remuée n'engendre point de mousse', Oihenart, 211.

7. **Herric bere legue, exec bere astura** 'chaque país a sa ley, et chaque maison a sa coustume', Oihenart, 229.

8. **Mendiz joan da**, diogunean ez da adierazten mendi bat den ala gehiago iragan beharrekoa, gramatikaren aldetik **mendi** ez baita ez singularra, ez plurala, ez kolektiboa, izen sintagma mugatzailek gabea baino.

9. **Ez dut etxerik erosi** diogunean ere berdin gertatzen da eta **etxerik** izen sintagma ez da ez singularra, ez plurala eta ezta kolektiboa ere, mugatzailek gabea baino. Izan ere erdarara modu bitara gutxienez itzul daiteke: a) 'no he comprado casa', b) 'no he comprado casas'. Batean **casa** moziu singularrez agertzen da eta bestean **casas** pluralez, baina euskarazkoak ez du horretaz informaziorik ematen, euskaraz ez baitugu oinهارiz numeroko moziarik sustantiboetan, adjetiboetan eta abar, generozkorik eta kasuzkorik ez dugun bezala.

10. Mugatzailek gabeak ezin egin dezake sekula pluralezko konkordantziarik. Irakurlea goian datozah fra-seetako berboetan konkordantziarako pluralak ipintzen saia daiteke, mugatzailek gabekoei begira daudenean alegia, eta hasi orduko konturatuko da gramatikalkitatea galtzen dutela. Hori ez da gertatzen, ordea, mugatzaile kolektiboekin, konkordantzia **ad sensum** eginik plurala ere har baitezakete: **gizon asko etorri da** edo **gizon asko etorri dira** edo **gara** edo **zarete**, baina ez ***ez ditut sagarrik jan** eta ezta ere ***harri erabilik ez dute biltzen oroldirik** edo **ez dituzte**.

Bergararako, 1978-IV-22

Alfonso Irigoyen

(1) Etcheberry, *Testament zaharreco eta berrico istorioa*, Bayonan 1874.

Euskararen gramatikari dagokionez, hainbat puntu ongi argitu gabe ditugu oraindik, eta hauetariko bat konkordantzien arazoa dugu. Villasante jaunak argitaratu berria duen "Estudios de sintaxis vasca" izeneko liburuan, zerbait aipatzen da problema. Eta liburua aipatu dugunez, gramatika sail honetan adieraztea komeni dela uste dut, euskal idazleentzako guztiz interesgarria dela deritzot eta. Materiale oso erabilgarria dakar eta laguntza handiko izanen delakoan nago. Akasño bat ikusten diot ordea, erdaraz idatzirik dagoela halegia. Zergatik erdaraz, gero adibideak ulertzeko euskara nahitaezkoa bada? Eta ote da heldu, gramatika eta linguistika euskaraz lantzeko ordua?

Tira! Hurrengo artikulu honetan euskaraz planteatzen zaigu konkordantzien arazoa. Alfontso Irigoyen euskaltzainak eginiko artikulu labur baina sakon honetan, izen sintagma mugatzailek gabeak aztertzen dira. Adibide batzu arkaiko samar eta ulergaitzak direlarik, alboan erdal itzulpena jarri die. Bestalde, ortografiari dagokienez, argitaratu zireneko forma errespetatu da.

HITZAK ete EGINTZAK

"Hitzak txori txiruli, eginak hobeto dirudi". Esaera zaharrak arrazoi du noski. Egintzek egingo gaituzte aske, egintzek jaraingo dute gure herria, mixeriarren eta zapalkeriaren erpetatik. Hitzak, haizeak daramatza, edo eta, beste hitz batzuen hotsak itotzen dituzte. Beraz ez dugu ezparririk: egintzak ditugu arean, herri baten bideak irekitzeko giltza. Eta areago behar luke izan Euskal Herri honetan, harako "hitzetan labur, egintzetan luze" ezarri digutenean.

Baina... baina..., zapantatu gaituen (eta zapantzen gaituen) piztia burrukatzen gabiltzalarik, bere hatsez kutsatzen gaitu. Barrabilak moztuko ditkiogu, baina ezin ukatu, bere izaeraz izorrraturik utzi behar gaituela. Gaur, izortapen eta kutsatze hauen lekukorik onena, ezker abertzalegoa dugur hitz jarria, hikanikakeria eta ezer gutti tuntu-sean.

Tximuak dirudigu; Bizantziotarren markar ere atzera utzi ditugu. Eta zergatik gertatzen da hau? Ene eritziz, etsaiaren beraren neurrietara jartzen garalako, bere hitzekin mintzatzen garelako, bere doinuaz kantatzen dugulako.

Herri baten izatea aldarrikatzen badugu, bere nortasunaren alde jokatzeko badugu, izan gaitzean **geu**; ez diferenteak, ez arraroak baina **geu**. Garen bezalakoak, beste guztiei irekiak, hori bai, baina ez tximukiak. Eta geutu egin ditzagun gugana datozenak. Geure berezko eraz pentsatu behar dugu, bai gizontasunari buruz, bai herritasunari buruz eta bai sozialtasunari buruz. Eta berdin, independentziari nahiz beste edozeri buruz. Lotsa ematen du esateak ere, baina gaur, gauza guzti hauk, erdaraz pentsatzen dira hemen eta erdarazko pentsakeraz erabiltzen, nahiz eta itxuragatik itzulpentxo batez, euskal arazoaren ardura erakutsi. Eta honetan errurik ez duenak (ezkerreko nahiz eskubiko) jaurtiki diezadala lehenbiziko harria.

Norberena erabiltzeak, ez du esan nahi bestea ez ezagutzerik, ez ikasterik eta ez hartzerik. Baina etsaiaren doinuaz kantatzen badugu, bere hitzez mintzatzen eta bere izariz gauzak neurtzen baditugu, laster garaituko gaitu eta menderatuko gaitu; **geu** makurtzen garelako, bere izakerara itzultzen garelako.

Begira independenzia hitzarekin zer gertatzen zaigun: euskaldundu dugu, etxean hoberik izan ez bagenu bezala eta kale eta bideetan aldarrikatu ere. Eta etsaiek zera uste dute: beren zerbait kendu nahiz gabiltzala. Baina euskal hitzez erabili izan bagenu, naiz eta erantzun berdina emango ziguten, ez zen berdin izango psikologikoki. Geure zerbait eskatzen arituko ginen. Hitzez eta izenek, beren soilean ere, askok uste baino eragin handiagoa dute.

Gaztelako erdarak, arlo honetako usteak adierazteko, hiru hitz darabiltza gehienbatetan: **autonomia**, **libertad** eta **idenpendencia**. Argi dago, hitzen sorbideak ez duela zerikusirik ematen zaien uste eta zentzuarekin; azkena dugu agian murriztena jatorriz, baina hala ere, berari eman zaio adierazpenik bortitzena. Baina guzti hau, erdararen kontua da. Joan gaitzen gu euskararen bidetik. Nola adierazten du euskarak uste inguru hori eta zein hitzaz? Hemen ere, bizpahiru hitz darabiltzagu: **askatu**, **libratu**, **jarain** eta **burujabe izan**. Bakoitzak ba du bere esanahi berezia.

ASKATU, gaur hedatua dugu, nahiz eta euskal zentzuan adierazpen murriztekoa izan. Hitz honen berezko zentzua hauxe dugu: zerbait, lokarri fisiokoetatik soltatu. Gizaki, abere nahiz gauza, bat lotzen duten lokarriak kendurik, "loka" uztea. Loturarik gabe uztea.

LIBRATU (eta ez erdaratikoa delako) murriztagoa dugu hegoaldeko euskalkietan behintzat. Eta beronen esanahia gehienbat hauxe dugu: zerbait (edo norbait) bere barnetik beste zerbait kendurik gelditzea. Emazte bat, haurra egitean, libratu egiten da; etxe bat, barnekoak ateratzean, libratu egiten da ere; eta kutxa bat, bere barnea hustean, eta zere bat gaztainak kentzean, nahiz heste bat gorotz egitean, libratu egiten dira. Beraz, Euskadi askatzen dugunean Frantzia eta Espainia libratu egingo dira. Eta gatazka onetik gainera.

BURUJABE IZAN. Hitz honen esanahia oso aberatsa da: Batean, zentzudun izatea. Beste batean, libre izatea, bai, baina izate horri dagokion erantzukizunarekin. Edonola ere, bigarren mailako usteera bat (goragokoa noski) adierazten digu. Eta erdarako "autonomia" hitzaren kideko izanik ere, halako zentzu sakonago bat ba du, zerbait gehiago da.

JARAIN, denetan zaharrena (nire ustez) jatorrena eta erakorrena dugu. Zenbait formatan ageri zaigu gaurko euskara bizian. Azkuek, hartu zituen batzu: jareí, jareín e.a.; baina arabarra (jarain) iru-

ditzen zaigu jatorrena. Hitz honen esanahia hauxe dugu: zerbait edo norbait guztiz libre uztea; euskal zentzuan, txori bat soltatzeari, jarain esaten zaio. Eta abere bat, naiz gizaki bat, askatuak izan arren, etxe barnean edo hesiz hertsirik, bahiturik egon daitezke; baina ate bat irekiz, beren gisa uzten baditugu, **jarainik** guztiz libre egitea, mugarik gabeko askatasuna ematea. Arana Goirik hitz hau, garaiz ezagutu izan balu, gaur hedatua eta indartsua izango genuke.

Eta jarain hitzak, beste guztien gain, ba du hobeagotasun ohargarria: ondorengoak sorterazteko erakortasuna. Hau da, hitz joko bikain bat sorterazteko gai dugula. Begira:

Jarain —	liberar
Jaraina —	liberado
Jaraite —	liberación (acto)
Jaraintza —	libertad, independencia (estado)
Jaraintasun —	libertad, independencia (cualidad)
Jaraile —	liberador, (-a)
Jaraipen —	liberación (acto intemporal)
Jaraitaro —	época de liberación
Jarainketa —	liberación (acto continuado)
Jarainkera —	modo de liberación
Jarainge —	no liberado
Jarainbide —	medio de liberación
Jarainkor —	propenso a la liberación
Jaraingarri —	digno de liberación
Jaraingarri —	posible de liberar
Jaraintezin —	imposible de liberar
Jarainterraz —	fácil de liberar
Jaraingaitz —	difícil de liberar
Jarainzale —	partidario de la liberación
Jaraintaurre —	preliberación
Jaraiñondo —	postliberación
Jarainkeria —	liberación viciosa, pseudo-liberación
Jarainkizun —	asunto, problema de liberación
Jaraiñik —	en estado de liberación
Jarainberri —	recién liberado
Jarainzar —	ha mucho liberado
Erdijarain —	medio liberado
Jaraintaldi —	período de liberación
Jaraiñune —	momento de liberación
Jaraintegun —	día de liberación
Jarainturte —	año de liberación
Jaraintegi —	lugar de liberación
Jaraikunde —	liberación (acción temporal y en su entorno)
Jaraikuntza —	liberación (acción intemporal y en su entorno)
Jaraite (bis)	liberación (substanciado y declinable)

Eta orain, bi ohartxo: bat, hitza erabiltzeko ahoskerari buruz; **dxarain** (Arabian edo Lekeition bezala) edo **yarain** (Arratian eta Lapurdin bezala) esan behar litzatekeela eta ez **je-je**, arabez bezala. Eta bestea, gerta-aurrez egin beharrekoa: gure hizkuntzaren ahultzaro honetan hain nabari dugun jokera jarraituz, norbaitzuk **jaraitu** forma aterako lukete (gizpukoarrek batez ere) berehala; baina forma hau, ez da ez egokia eta ez bidezkoa, aldrebeskeria bat baizik.

Ikusi dugu, bai euskal pentsakeraren estrukturan eta bai euskararen arauetan zein egoki jartzen den hitz hau. Eta orain galdera bat. Zinez nahi ote dugu euskararen indartzea eta euskal kulturaren zuzpertztea? Hau honela bada, egin dezagun benetan eta ez asmotxoka, eta txokokerika. Eta aldarrika dezagun Euskal Herrian gaindi:

IGORA ETA JARAIN EUSKADI!
IGORA EUSKALERRI JARAINA!
JARAINTEA, SOZIALISMOA, eta HERRI—OSAKUNTZA, biharko EUSKALDUNTZA

JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

Hiruhilabetez behin ateratzen da

Monografiak
Dossierrak
Azterketak
Kritikak
Gaurko gaiak

Oraingo zenbakiaren gai nagusia:

NAFARROA

Oraingo zenbakiaren lankideak:

Bueno Asin, Jesús
Jimeno Jurio, Jose Mari
Larunbe, Pedro M.
Mendikute, Jose A.
Mina, Mari Kruz
Ruiz Olabuenaga, Jose I.
Satrustegi, Jose Mari
Torrealday, Joan Mari
Urrutia, Víctor

JAKIN

800 pta. urtean. 250 alea

Eskabideak eta harpidetza:

Cuartel, 2
Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 65 11 06

ZIANTZ

ZIENTZIA SOZIALEN EUSKAL ALDIZKARIA

(Bi hilabetetik behin plaza-
ratuko da)

Zuzendari: Antton Ibargu-
ren, jurista.

Idazkari: Karmelo Arroiabe,
soziologoa.

Hirugarren zenbakiaren
gai nagusia:

U.E.U.-77

J. M. Larrazabal: *E. U. ranzko
bidean, U.E.U. bidegidari.*

J. Apalategi: *Euskal nazional
arazoaz.*

A. Ibarguren: *Langile era-
kunderak eta alderdi polti-
tikoak.*

J. M. Odriozola: *Lentn eta
Estatua.*


J. A. Agirre: *Historiaren kon-
tzeptuaz.*

K. Larrañaga: *Historiaren tra-
kaskuntza: E.G.B.*

J. Sudupe: *Dialektikaren oina-
rrizko lege batzu.*

Salneurria: Ale bakoitza,
150 pta.
Urteko harpidetza (sei ale),
750 pta.

Zabaltzaile: J. F. Jaka
(BILINTX liburudenda)
Fernán Calbetón, 30
DONOSTIA. Tel:
(943) 42 09 30.



SARRIKON BAI EUSKARARI

Sarririkoko Ekonomikazko...
 ...atean, aurrean, lehen...
 ...ikasle talde batek...
 ...matematikazko klaseak eus-...
 ...eraman ditugu.
 ...erperientzia oso positi-...
 ...izan da, baina bere era-...
 ...enak ere izan ditu:
 -Jendeak uste du...
 ...matematikazko klaseak eus-...
 ...erematea "genioen"...
 ...za bat dela, eta, noski, ez...
 ...horrela. Euskara ezagu-...
 ...eta interes pixka bat...
 ...kizea nahiko da klaseak...
 ...realitate bihurtzeko.
 ...regatik seguraski aurren...
 ...gara jende gehiegi izan...
 ...eta etorri garenok nahi...
 ...datorren urtean...
 ...atzean eta dagoeneko...
 ...enak egiten hasi gara.
 -Beste garrantzizko era-...
 ...ena zera da, irakasleen...
 ...gutu direla euskaldu-...
 ...eta pixkanaka pixkanaka...
 ...balidin badira prestatzen...
 ...Unibertsitatea amets...
 ...besterik ez dela izango...
 ...dugu.
 Datorren urtean Matema-...
 ...eta Estatistikazko kla-...
 ...euskara izango ditugu,
 ...dion lana denez gero...
 ...iruzkitzen zaigu...
 ...atzean plangintza eta...
 ...dinake eta bat egiten has-...
 ...oraingoz mailaka maila-...
 ...euskara Unibertsitate ofi-...
 ...sar dadin.
 Oinarri. Nahiz eta oso...
 ...matematika/ariak ez izan...
 ...onk aprobatu dugu, eta...
 ...go gainera.
KASLE TALDE BAT:
 Mikel Zubano
 D.N.I. 15.945.979
 M. Sot. Esteban
 D.N.I. 14.945.613
 Joseba Aizpurua
 D.N.I. 15.948.213
 Idoya 9 letas
 D.N.I. 72.252.748
 Bingen Saitua
 D.N.I. 16.029.067
 Pivi Bilbao
 D.N.I. 24.406.965
 Txomin Otaegi
 D.N.I. 15.945.700
 Txomin Ansoalde
 Txomin Alustiza
 Txabab Aramendi
 Txomin Aramendi
 Txomin Aranburu
 Txomin Men dizabal
 Txomin Arri zabalaga

DONIBANE LOHITZUNeko IKASTOLAREN DEIA

Donibane Lohitzuneko ikastolan 75 haur ditugu eta lokalik inon ezin aurkitu datorren urtean sartzeko. Dakizuen bezala ez dugu dirurik etxe baten erosteko. Behar genuke etxe haundi bat baratze zabal batekin, Donibanen edo bere inguruetan. Norbaitek balu horrelako etxe bat alokatzeko edo prestatzeko telefona beza 26.40.59 edo 26.44.65 zenbakietara, edo berria jakinarazi ikastolan, Villa Altuena, Rue Duconte. Donibane Lohitzunen.

Milesker aitzinetik.

*Donibaneko guraso, irakasle
eta haurrak*

EUSKALTZAINDIARI ESKUTITZ IDEKIA

Iragan den apirilaren 8an, lehen aldikotz iparraldean, titulu "D"-aren presentatzeko examina ospatu da. Mende Berri taldeak antolatzen duen ikastaldiko ikerraldi mailan parte hartu dugu tituluarren presentatzeko.

Denak harrituak gelditu gira Euskaltzaindiak berrogoi ta hamar franko galdatzen zuela jakin dugularik. Eskutitz honen bidez printzipio, sistema horik salatu nahi ditugu.

Ez dugu hori batere onhartzen:

- *sobera kario (garesti) baitzaigu:* ezantza (gazolina), papera eta lan zuzentzearen pagatzeko ados gara baina gastuek ez dute 50 frankorik balio.

- *presentatu nahi izan dutenak militanteak baitziren:* tituluarren ukaitea, guretako, bide bat zen euskararen biharamunarentzat lan gehiagoren egiteko: lizeetan, eskolatan euskararen irakasteko posibilitatea ematen baita. Hori argi ta garbi nahi ginuke erran: titulua presentatu dugu ez ogibide baten ukaiteko, ez sosaren irabazteko, euskararen azkartzeko baizik.

- *horrela segituz, Euskaltzaindia Burjeszaindia bihurtuko baita.* Sistema hunek 50 franko edo 1.000 pezeta galtzeko ez dituen jendea baztertzen du. Ez da normala ez eta onargarria.

Beraz Euskaltzaindiak zer behar duen izan?

Euskararen atzikitzailea, gordetzaitailea, zaintzailea. Zaintze hori ba bainan ez hiltorian den hizkuntza bat bezala, hizkuntza bizi bat biharamuna duen hizkuntza bat bezala.

Lan horren aintzinateko, sosa (dirua) beharrezkoa da. Baina euskara irakatsi nahi dutenek ez dute dena ordaindu behar. Ordain bezate alderdi politikoek, ordain beza "Consejo General Vasco"-ak. Herriak ere Euskaltzaindia lagundu behar du; antola ditzala kantaldiak, eskeak eta abar...

Espero dugu heldu den examinarendako gauzak aldatuko direla.

Mikel Hiribaren, Amaia Fontan, Xan Goenaga, Ladix Lanouguere, Monika Legarto, Jon Casenave, Yvette Saragueta.

Donapaleun gutun hau sinatzen dutenen irakasle izan nintzenez gero, beraiek diotenarekin ados azaltzeaz gain, pare bat ohar erantsi nahi nituzke. "Edozein herrialde normaletan" titulu bat erdiesteko ordaindu beharra badago, argudio hori oinharritik beretik kolokarazia dugu gurean: gu ez baizikara herri "normal" bat..., bestela ez genuke hizkuntza salbatzeko pegatinak saltzen eta futbol partidu benefikorik antolatzen ibili beharrik izango. Demagun, hala ere, ordaintze-kontu hori "seriotasun"-seinale bat dela: baina, otoi, delako "seriotasun" hori ez dadila soilki zergak biltzeko aitzaki gisa erabil.

1. "Seriotasuna" etsamin gaiak prestatzerakoan. Donapaleura eraman ziren etsamin paperak Gasteizkoak berberak ziren. Besteak beste, itzulpen-esaldiak espainolez zeuden. Xarriton jaunak itzuli behar izan zituen frantsesera han bertan eta ikasleek hark esandakoa boligrafoz kopiatu.

2. "Seriotasuna" programak finkatzerakoan. Astebebez aritu ginen lanean Euskaltzaindiaren programa ofizialari jarraiz eta Gasteizko azken etsamina eredutzat harturik (nolabaiteko susmoa ere bait baikenuen ez zutela berrikerik antolatzeko molestiarik hartuko, ...bai eta asmatu ere), han aritu ginen -diot- aditz batua, hiztegi batua, menpeko esaldien era batua azaltzen..., hitz batez: etengabe Lafitteren Gramatika aztertzen baina "gainditzten", eta etsamina iritsita-koan zer gertatuko?: "bon, guk ez dugu hemen, Iparraldean, "etor" aditz sintetikoa erabiltzen eta, beraz, ken ezazue "zatoz" hori eta ezar "jiten zira" (?!); "amaitu" jartzen duen lekuan jar ezazue "bururatu", eta abar eta abar. Beno, jaunak, bagara edo ez gara?

Uste dut beti hain ezteki eta bihotz-urradura hunkigarri aipatuak diren gure "Iparraldeko senideei" hori baino ganora handiagoa zor zaiela. Amen.

J. Austin Arrieta

UMOREAREN ATALA

Argentina 78



BIRIKI



LAS PREAUTONOMIAS NO SIRVEN PARA NADA...

HARA HARA!
FRAGA EUSKOLDUNO
ARRAZOIA EMATEAN...



ARGENTINAKO SUPLENTEAK



BIRIKI



TODO POR LA PATRIA




...ETA GU
UNE BERDE
GEHAGO
ESKATEAN...

BIRIKI



...ETA GAUR KUTSADURA-
REN AURKAKO EKINTZAK
EGINGO DIRA...

1.



BAI, GURE INGURUAK
ONDO KUTSADURA TUTA
DAUDE BEHINTZAT!

BIRIKI

GURUTZEGRAMA

13.

L	A	U	B	U	R	U	H	O	R	D	A	G	O
E	N	P	M	I	S	T	E	R			B	O	S
Z	I	A	P	E	A	X	K	A	L	E	A	K	
A	L		R	A	R	A		M	A	L	T	A	
R	A	B	I	O		N	E	G	A	R	A	R	
D	E	G	I	A		O	R	O	I	T		B	
E	A	I	A	N		G	O	R		Z	U	B	I
H	A	R	R	I	G	O	R	R	I	A	G	A	
R	O	K	O		Z	O	R		I	B	A	R	T
R		B	E	T	A	R		A	B	A	R	X	
E	B		I	K	U	Z	I		E	L	I	Z	A
J	A	U	D	I		T	J	A	R		A	P	
A	Z	K	E	N	A		X	O		A	H	U	M
L	A	O		B	E	U	S	T	U		G	A	L
A	R	R	A	T	I	A		A	S	K	A	T	U

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13
14				15	16							
17										18		
19				20				21		22		
23						24			25			26
				27				28				
29						30		31		32	33	34
					35			36				
37	38			39		40				41		
				42	43			44				
45			46			47	48		49		50	51
			52			53		54			55	
56	57					58				59		
60				61		62						
63										64		

ZENBAKIA

ZETARA

- 1. Juan Paredes
- 2. Euskal eskola.
- 3. Bizkaiko herri (Anboto ondoan da).
- 4. Egiptiar erregina.
- 5. Dut (Errekonkariko euskaraz).
- 6. 1969-ko uztailaren 31.ean jaio zen taldea.
- 7. Errusiako enperadore.
- 8. Zurezko musika-tresna.
- 9. Enkantu.
- 10. Atziki alatiboa (ipar aldean).
- 11. Amona.
- 12. Haren emaztea gaztu zen.
- 13. Borta.
- 14. Izeba (bizkaieraz).
- 15. "Maritxu, nora"?
- 16. Epotxa.
- 17. "Inor salatu baino nahiago" hila."
- 18. Atziki diminitibo.
- 19. Gatz Laku Haundia non den.
- 20. etorri!
- 21. Gure planeta.
- 22. Sabin Arana-ren hitza 'aita' adierazteko.
- 23. Suge handi bat.
- 24. Zenbait jendeek eguzkiari "egunaren" deitzen diote.
- 25. Babekin jaten ohi den landare.
- 26. Québec-eko penintsula.
- 27. Ingalaterrako lur-neurri.
- 28. Korsika edo Yeu, e. b.
- 29. Urrutizkina (laburpena).
- 30. Muhammad, boxealaria.
- 31. Zergatikoak.
- 32. Euskal ethonographo (izen osoa; 3 hitz).
- 33. Kazeta.
- 34. Ezkel diagonal.

GOITIK BEHERA

- 1. Zuberotar ez den euskaldun.
- 2. Kapritxo, gurari.
- 3. Euskalki bat.
- 4. Galdetzeko partikula.
- 5. Euskal zyklope.
- 6. 'Barnean' adierazten duen aurrizki.
- 7. "Ez det nik ikusiko Zure ederra."
- 8. Artseniko (symbolo khimiko).
- 9. "..... Mater", hymnoa.
- 10. Edari bat.
- 11. Baina.
- 12. Xao-txi, Txinako lehendakari.
- 13. Arteria handiena.
- 14. Mendiak (frantses laburpena).
- 15. Donosti ondoko herri.
- 22. "Ongi egon zen Tolosan peria".
- 26. Obediente, eskurakoi.
- 28. Tindagaien moeta bat.
- 29. Ikara.
- 31. Pedro de, Bizkaiko idazle (1748-1831).
- 33. Arratsalde on (Bizkaiko euskalki batzuetan).
- 34. "Bihar etorriko da, Denbora bada."
- 35. Joaten da.
- 38. Gebara.
- 39. Hauk, horik,
- 41. Utzi! (hiketari).
- 43. Bela, Hungariako konposatzaile.
- 45. Bidaia.
- 46. 'Tresna' adierazten duen atziki.
- 48. egin, neska bati laztan egin.
- 50. Gure autopistan ikusten den seinale.
- 51. Batak bestea.
- 54. Euskal syndikal talde bat.
- 57. Keltar jainko.
- 58. Suitzar hibai.
- 59. Guztiak.
- 61. Indio (symbolo khimiko).
- 62. Kaltzio (symbolo khimiko).

KALEKO



ZILARREZKO KRABELINA



Ezpeleta dendakoek merezi dutela uste dugu. Izan ere, Bilbo erdiko plaza batetan holako euskal izena ikusteak (!Ardo eta edariak?) poza ematen du. Horrelako askorekin gure kaleetan mundu guztia laster ohituko litzateke eus-kara egunero ikustera, egunero irakurtzera, eta, konturatu ere egin gabe, ikastera ere bai.


Zorionak beraz Ezpeletakoei eta ugai daitezela imita-tzaile euskaltzaleak!



ESAERA ZAHARRAK

HOLA BADA HALA BIZ, ETA EZ BADA, ORA PRO NOBIS. Bestela ezinean, nora ezean zerbait erabaki behar denean, erremedio edo bide susmagarri baina bakarra hartu behar denean esaten da, horretan salbatzeko ustea dugun arren, agian bertan gal gaitzkeelako.

Esate baterako: Ba dirudi Espainol Estatura demokra-zia behin betiko heldu dela. Hala bada, hala biz, eta ez bada, ora pro nobis. Zeren, batzuk nahi luketenez, Franco berriro birpiztuko balitz... akabua!



Has zaitetz gutaz bestela pentsatzen.

Gurekin harremanetan ari diren guztiei gauzak ikusteko beste era bat eskaini nahi diegu, tratuetarako modu berri bat, eta zerbitzu osoagoa ere bai. Geroak jadanik orain egiten dizkigun eskabideetara egokitu nahi dugu geure jarrera. Horrexegatik geure buruari aurreranzko proiektio bat jarri diogu helburutzat, orain arteko aurrerabidean izan garen baino hobeak izan gaitezen. Guk guztiontzat hobe izango den etorkizuna moldatzen segitu nahi dugu, eta hori gaurdanik egiten hasi beharra dagoela ongiegi dakigu. Geroa hementxe dago eta.



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

geroa hementxe dago.

Gipuzkoa besterik ez dugu gogoan hargatik Probintzial da gure izena.



Gure probintziaren aurrerabidean gero eta lankide sutsuagoak izateko prest gaituzu: bai nekazaritzan, bai industrian, bai merkatalgoan, bai komunikabideetan,... edozein alorretan. Gipuzkoan bizi maila goratzeko bidea gerta litekeen guztian. Probintzial izena daramagu eta gipuzkoar aurrerabidearen alde ari gara ahaleginetan beti ere.



GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA